



Bakearen aldeko kontzertua

Bilbo, Donostia eta Zaragozako 300 ahots zurik egingo dute Arantzazun, hilaren 30ean | 23

400 lagun batuko dira Aramaion Debagoieneko Trikitixa Egunean | 18



Turismo bulegoek prest dute Aste Santuko oporraldirako eskaintza | 5



Osasuna, Valentzia, Espanyol eta Gipuzkoako Konbinatua Bergaran | 20



Langileak Epeleko bihurguneko segurtasun- hesiak kendu eta bidea estutzen.

EPELEKO BIHURGUNEA LEUNTZEKO OBRAK EGITEN HASI DIRA

Epeleko araztegiko lanen barruan, Arrasateko sarrerako bihurgunea leuntzeko lanak hasi dira asteon. Datorren astean bukatuko dituzte, baina adi egotea komeni da, ordu batzuetan itxi egingo dute-eta errepidea. Araztegiko gainontzeko lanak maiatzean amaituko dituzte | 4

MONIKA BELASTEGI

SINADURAK

-  **Nuklearrik ez!** | 6
MANU ARREGI
-  **6 | IKEAtik Guria tabernara**
MIREIA BIKUÑA
-  **Tinko, ez etsi** | 12
ANDRES OSA 'SAKONA'
-  **16 | Gizakien harremanak**
MARIJO PAGALDAI
-  **Egun berezia** | 17
KONTXI LASKURAIN
-  **32 | Egin apustu**
MIKEL IRIZAR

EAJko buruek dimititu egin dute Antzuolan

Uri Buru Batzarrak zerrendarik ez aurkeztea erabaki arren, GBBk herritik kanpokoez osatua aurkeztu du | 17

MAIATZAREN 2RA ARTE, IRAKURLE!

Aste Santuko oporrak hartuko ditugu apirilaren 25era arte. Hurrengo *Goiena* paperekoa maiatzaren 2an argitaratuko dugu, astelehena. Ondo ibili oporretan!



DEBAGOIENENKO BOST ALKATE EZIN IZANGO DIRA AURKEZTU HAUTESKUNDEETARA

- ▶ Antzuolak, Arrasatek, Bergarak, Eskoriatzak eta Aramaiok alkate berria izango dute
- ▶ Guztiak bat datoz gauza baten: apustu berri hau ez da soilik hauteskundeetara mugatzen
- ▶ Demokrazian, parte-hartzeko eskubidea urratu zaie 40.000 euskal herritarri

MAIDER A./A E. | DEBAGOIENA

Lau urteren ostean, Debagoieneko bost alkate ezin izango dira udal hauteskundeetara aurkeztu. Ino Galparsoro Arrasateko alkatearekin, Pedro Iturbe Antzuolako alkatearekin, Asier Agirre Aramaioko alkatearekin, Agurne Barruso Bergarako alkatearekin eta Dorleta Lezeta Eskoriatzako alkateordearekin hitz egin dugu bukatzean dagoen agintaldiaren gainean.

INO GALPARSORO
ARRASATEKO ALKATEA

"Mesfidantzazko Udal Gobernu bati buelta ematea lortu dugu"

Galparsorok azaldu nahi izan du Debagoiengan sei alkate izatea zegozkioa ezker abertzaleari: "Aretxabaletan lehen indarra izan ginen; herritarrek askatasun eta eskubide osoa izan behar dute ordezkariak hautatzeko, eta, hori galarazten den heinean, eskubide urraketa larria dago". Euskal Herrian 40.000 pertsonak udal hauteskundeetan aurkezteko aukerarik ez izatea "geozidio politikoa" eta Alderdi Legearen ondoren diseinatutako "makillaje juridikoa" dela dio. Euskal Herrian irekitako prozesuak ez du atzera bueltarik; ezingo dute herri honek hartutako bidea ekidin. Nabarmendu du herrian martxan jarri den apustu berri hori ez dela hauteskunde hauetara bakarrik mugatzen.

Bilduk ibilbidea mehatxupean hasi duela dio: "Hauteskundeak ez dira egoera normalizatuan eta baldintza egokietan egingo; aukera politiko batek ez du aurkeztetik izango; baina Debagoienak eskualde abertzale eta ezkertiarra dela erakutsiko du".

Balorazioa eskatuta, hau esan digu: "Gobernu talde moduan jaso genuen mesfidantzaz betetako udal giro ilunari buelta eman diogu eta udal jarduera modu irekian burutu: gardentasunarekin eta zintotasunarekin. Herritarrei Udaleko ateak ireki dizkiegu; gertutasuna eta parte-hartzea izan da udal honen ardatza".

"Jasotako babes eta gertutasuna eskertu nahi dugu, bereziki

neu kartelaratua izan nintzenekoa. Agintaldian zehar herritarrengandik sentitu dugun hurbiltasuna ere eskertu nahi dugu. Barkamena eskatzen dugu, berriz, asmatu ez ditugun gauzengatik".

ASIER AGIRRE
ARAMAIOKO ALKATEA

"Parte hartzeko eskubidea kolokan dago, demokrazian"

Aramaion 70 herritar inguru ezin gongo dira aurkeztu zerrendatan. "Gainontzekoen eskubide berak izan beharko genituzke, beste edozein bezala hautagai izateko edo hautatua izateko. Gure aurreikuspen bakarra edozein herritarrek libreki aurkezteko aukera izatea zen. Egoera dena delakoa izanda ere, Alderdi Legea eta erabiltzen ari diren eskumen politikoak zenbait herritarrek parte-hartzea eragozteko daude eginda". Agirrek gaineratu digu udaletatik herritar guztiak pasatzeko aukera izatea gustatuko litzaikeela: "Herriko edozeinek aurkezteko eskubidea izango balu, herri batzarretik pasako litzateke eta aurkezteko aukera izango luke, zerrendaburu edo zinegotzi gisa. Nire nahia da edozeinek parte-hartzeko eskubidea izatea, ez nik bakarrik". "Erabaki horrek kolokan jartzen du demokrazian parte hartzeko eskubidea. Erabaki politikoa da eta horrek edozein instituziotan lan egiteko eskubidea ukatzen die euskal herritarrei".

Konfiantza Bildu koalizioan dute jarrita: "Ezkerretik abiatzen dugun proiektua da eta bertan

ESANAK

"Ibar ezkertiarra eta abertzalea dela erakutsiko dugu"

INO GALPARSORO | ALKATEA

"Edozeinek parte hartzeko eskubidea izan beharko luke"

ASIER AGIRRE | ALKATEA

"Hautagaiak izateko eskubidea kendu digute"

DORLETA LEZETA | ALKATEORDEA

"Hemen garrantzitsua da zilegi den edo ez"

AGURNE BARRUSO | ALKATEA

"Herri baten eskubideen kontrako eraso bat da"

PEDRO ITURBE | ALKATEA

ikusten den errealitatea herrietan ikusten den errealitatea da; herriko lantaldea da; ezkerretik lan egingo dutenak". Aramaion, esaterako, aurreko agintaldiak Udala nola utzi duen ikusita, demokrazian lan egiteko aukera onena Bildu dela uste dugu". "Aramaion ezker abertzaleko kideak ibili gara aurreko agintaldikoek, EAJ eta EA alderdikoek, utzitako hondarra konpontzen; herritarrei gertatutakoa ulertarazi eta lagundu behar izan diegu. Horregatik uste dugu Bildu dela aukera".

DORLETA LEZETA
ESKORIATZAKO ALKATEORDEA

"Eskubideen alde lanean jarraitzeko konpromisoa dugu"

Deliturik egin gabe, hautagaiak izateko eskubidea kendu dietela azpimarratu du Dorleta Lezeta alkateordeak. "Aurrez epaituak eta inhabilitatuak izan gabe, eta herriak aukeratu dituen alkate eta zinegotziak ezin dira aurkeztu. Egoera horretan Euskal Herrian 40.000 pertsona gaude eta hori oso larria da".

Prozesu geldiezina abian dela dio Lezetak: "Argi dago Euskal Herrian abiarazi dugun prozesua geldiezina dela. Estatuaren estrategiaren barruan, ezker abertzalearen aurkako beste eraso bat da. Baina guk gure asmoa argi dugu eta aurrera jarraituko dugu, oztopoak oztupo, badakigu eta etorkizunean egoera bestelakoa izango dela".

Bilduren zerrendekin zer gertatuko den ere ez dakitela azaldu

digu: "Ezker abertzaleak ezingo du egoera normalizatuan hauteskunde hauetan parte hartu, eta Bilduren zerrendekin zer gertatuko den ere ez dakigu. Guk egin beharrekoa egin dugu, baina azken erabakia ez dago gure esku. Dena den, guk herrirako landu dugun proiektuak gauzatzeko indarra badugu, eta dagokigun eskubideen alde lanean jarraitzeko konpromiso argia daukagu".

Krisi ekonomikoak baldintzatutako agintaldia izan dela eta proiektu asko bideratzeko dirulaguntzak jasotzeko lan handia egin dutela kontatu digu: "Ekonomikoki nahiko egoera larrian jaso genuen Udala, eta, alde horretatik, agintaldi honetan egoera bideratuta utzi dugula esan dezakegu". Funtzionamenduari dagokionez, herritarren babes jaso dutela baina hainbat zinegotziren parte-hartzea faltan igarri dutela dio.

AGURNE BARRUSO
BERGARAKO ALKATEA

"Politikagintzan askatasunez aritzeko eskubidea urratu da"

"Ezingo da Ezker Abertzalea marka propioarekin aurkeztu. Ez dira bost herri, Debagoieneko herri guztiak eta Hego Euskal Herriko guztiak ere hartzen ditu ilegalizazioak", argitu du Bergarako alkateak udal hauteskundeetan egongo ez direla-eta. Horren inguruan balorazio ezkorra egiten du Barrusok: "Hainbat euskal herritarri 40.000tik gorako politikagintzan askatasunez aritzeko eskubidea urratzen digute eta beste milaka herritarri euren ordezkariak modu askean hautatzeko eskubidea urratzen zaie".

Aurreikusten zuten edo ez galdetuta, Barrusok dio garrantzitsua ez dela hori: "Garrantzitsua da zilegi den edo ez". Ezker Abertzalea ez dela maiatzaren 22ko hauteskundeetan marka propioarekin egongo gaineratu du Barrusok. Horren harira dio: "Aurreko hauteskundeetan Ezker Abertzaleari bozka eman dioten herritarrek egongo diren hautagaien artean euren sentsibilitatea ondoen ordezkatzeko duena hautatu beharko dute bozka emateko". Gaineratu du: "Ez dira hautes-

Hautagai izango dira berriro

Berriro izango dira zerrendaburu eta alkatetzarako hautagaiak Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga (EAJ), Aretxabaletako alkate Inaxio Garro (Aralar) eta Elgetako alkate Oxel Erostarbe (Aralar). Idoiak bost urte daramatza alkate. Hau da, azken bi agintaldietan jardun du. Izan ere, Andoni Gartzia hiru urte egin zituen alkate eta Idoiak bete zuen azken urte hura. Erostarbek eta Garrok, berriz, 2008-2011 agintaldia bete dute alkate moduan Elgetan eta Aretxabaletan, hurrenez hurren.



Lourdes Idoiaga.



Inaxio Garro.



Oxel Erostarbe.

Bestalde, aipatu behar da Eugenio Otsoa eta Patxi Basauri alkate ohiak berriro aurkeztuko direla hauteskundeetara zerrendaburu gisa. Otsoa Leintz Gatzagako herritarrek osatutako zerrendaren ordezkaria da; eta Basauri, berriz, Elgetako EAJ alderdiko zerrendaburu moduan aurkeztuko da.



Ino Galparsoro, Arrasateko alkatea.



Asier Agirre, Aramaioko alkatea.



Dorleta Lezeta, Eskoriatzako alkateordea.



Agurne Barruso, Bergarako alkatea.



Pedro Iturbe, Antzuolako alkatea.

kunde normalizatuak izango. Sortu ezingo da aurkeztu eta komunikabideei jarraituta Bildu mehatxu artean sartuko da hauteskunde-prozesuan. Zer gertatuko den ez dakit, baina nahiko nuke Euskal Herrian eszenatoki berria eraikitzen jarraitzeko moduko emaitzak izatea".

Amaitzeko, eskerrak eman nahi ditu Barrusok: "Alkate karguak ezezagunak nituen herriko hainbat arlo, eragile, talde eta pertsona ezagutzeko aukera eman dit. Laguntza eta aholku-eske jendearengana joan garenean sekulako harrera jaso dugu, eta ondo eginak aitortu digu".

PEDRO ITURBE
ANTZUOLAKO ALKATEA

"Gaur egungo markoarekin eroso daude Madrilen"

ANVko zerrendetan aurkeztu zirenak orain ezingo direla aurkeztu baloratzerakoan, Pedro Iturbek dio: "Herri oso baten eskubideen kontrako eraso baten aurrean kokatzen gara. Espainiako Estatuak beharrezko dituen trikimailu guztiak erabiltzen jarraituko du, eszenatoki ez demokratikoa behar du eta hau beste

Antzuolan ez da Aralar izango

Aralarrek ez du zerrendarik aurkeztuko Antzuolan. 2008an, Aralarrek, Zutik-EBrekin koalizioa osatuz, bi zinegotzi eta 218 boto (%16,8) eskuratu zituen. Hamaikabat alderdiak, ostera, Oñatin bakarrik aurkeztuko du zerrenda Debagoienean. Alkategaia, Amaia Intza izango da.

adibide bat besterik ez da". Gaineratu du: "Azken urteetan Euskal Herrian gertatzen ari denak ez du hitzik. Milaka eta milaka herritarren eskubide zibil eta politikoen zapalketa etengabea da, espainiar neo-faxismoak ez du mugarik, izan PSOE, izan PP; EAJ-PNVren laguntza estimagarriarekin, gainera".

Erabaki horrek marko berria zelan baldintzatzen duen galdetuta hauxe dio: "Prozesu demokratikoa aurrera doa, zailtasun gehiago edo gutxiagorekin, baina aurrera, eta hori da garrantzitsua. Madrildik saiatuko dira prozesu demokratikoa zapuzten, ez bai

tute behar bestelako markorik, gaur egungoan kokaturik eroso daude". Iturbek gaineratu du ezker abertzaleak ezingo duela marka propioarekin hauteskundeetan egon eta hori salatu nahiko lukeela.

Debagoienean zer gertatuko den galdetuta, dio badela mugimendu bat non ezkertiar, abertzale eta subiranistak elkar daitzekoen: "Herritar independenteek, EAK eta Alternatibak eratu duten Bildu proiektuak herritar askoren babesa jasoko duela iruditzen zait". Amaitzeko, agintaldian bidelagun izan dituen zinegotziak zoriondu nahi ditu.

BATXILERGORAKO AURREMATRIKULAZIOA

ARANZADI Ikastolan

BATXILERGO eta SELEKTIBITATEKO EMAITZA EZIN HOBEAK

zatoz eta ikusi!

MATRIKULAZIO EPEA
Maiatzaren
2tik 11ra
BANAKAKO HITZORDU
INFORMATIBOAK
NAHI IZANEZ GERO,
DEITU 943 76 90 71 telefonora

 **ARANZADI ikastola**
Kalitatezko Euskal Heziketa

 **40** urte
ARANZADI ikast
Kalitatezko Euskal Hezi

2010  **Bikain**
Euskal Herriaren
Kalitate Zuzendaria



Errepidea estutu egin dute errebuelta leuntzeko obrak egiteko. | MONIKA BELASTEGI



Hodiak errekatik pasa ostean, Elorregin errepidea zeharkatzea falta da. | ENEKO AZKARATE

Maiatzerako bukatuko dituzte ibarreko araztegi handieneko obrak, Epelekoak

Datorren astean amaituko dute errepideko errebuelta konpontzen

UBANE MADERA | ARRASATE

Apirila-maiatza. Horixe da Epeleko araztegi obrak behin betiko bukatzeko zehaztu duten data berria, berez martxoa zen-eta aurreikusita zegoena.

Eta beste data bat ere eman dute: Pazko astea. Orduantxe gura dute bukatu GI-627 errepidean asteen hasi duten konponketa: 50 bat metroan, AP-1 autobidearen sarrera baino lehen dagoen errebuelta samurtu. "Errepidea estututa gabiltza obra egiten, ahalik eta eragozpen txikiena eragiteko. Lanik handienak datorren astean egingo ditugu, jakinda eskola-umeek eta beste askok oporrak

dituztela. Hala, ordu batzuetan itxi egin beharko dugu errepidea, baina datorren astean bertan bukatuko ditugu lanok", adierazi dute UTE EDAR Epele enpresako obra arduradunek.

Lau kilometro bidegorri

Osterantzean, araztegiari berari dagozkion obra guztiak bukatzeko falta zaizkien lanak honako hauek dira: Elorregi inguruan hodi zati bat sartu eta urbanizazio lan txiki

batzuk egin: "Elorregiko biribilgunean, errepidea gurutzatu behar dute hodie eta Diputazioaren baimenaren zain gaude".

Urbanizazio lanei dagokionez, berriz, araztegia bera ixteko hesia

DATUA

848

LITRO

Segundoko 848 litro ur hartzeko gaitasuna dauka Epeleko araztegiak.

Saneamendu sarea biribiltzeko

Espainiako Ingurumen Ministerioak hartu zuen Epeleko araztegia egiteko ardura, interes orokorreko lanak zirela aitortuta, eta 2007an hasi ziren lanak. Epelekoa izango da Deba ibai osoko saneamendu sarea biribilduko duen azpiegitura. Debarro erdialdean Apraizko araztegia dago, Elgoibarren, eta behealdean, Debakoa eta Mutrikukoa. Sarea osatzeko, Soraluze eta Apraitzen arteko lotura egitea falta da.

egiten dabilta, eta baita araztegi barruko bidea ere. "Bidegorriko lanak hilabete honetan bukatuko ditugu, aglomeratua botatzea besterik ez da falta, gainerako guztia eginda dago-eta", jakinarazi dute Epeletik. Hain zuzen ere, araztegi barrutik pasatzen den bidegorria eraikitzea da Epelekoen ardura. Bidegorriaren gainontzeko zatia, Oñatira artekoa, Gipuzkoako Diputazioaren eskuetan dago. Guztira lau kilometro bidegorri egokituko dute Epeleko araztegi obrak aprobetxatuta.

Tratamendu biologiko-naturalak

Araztegi bueltatuz, behin obrak bukatuta, hurrengo sei hilabeteotan araztegiaren funtzionamendua probatzen jardungo dute, dena zuzen dagoela egiaztatzeko.

Hain zuzen ere, Epeleko Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Oñatiko urak hartuko ditu. Eta hasteko Arrasate inguruko urak garbitzen hasiko direla adierazi dute, eta abuztu inguruan gehituko dizkiotela Oñatiko urak.

Ur horiek guztiak lehenago eraikitako kolektore saretik hartuko dituzte; hau da, garbitu beharreko urak ez dira gaur egun errekan daudenak: "Esaterako, tailerrek ur-zikinak baldin badituzte, eurak arduratu beharko dira horiek garbitzeaz", argitu dute Epeletik.

Urak garbitzeko, berriz, tratamendu biologiko-naturala erabiliko dute. "Adibidez, ura igerilekuan gelditu utzi, eta modu horretan urak daukan zikinkeria ur-azpira joango da, eta ur garbia goialdean geratuko da. Bestelako igerilekuan, berriz, oxigenoa erabiliko dugu mikroorganismo jakin batzuk eliminatzeko, edo urak duen nitrogenoa eliminatzeko... Tratamendu naturalekin lan egigo dugu."

Familia euskaldunetan egonaldiak egiteko eskaera-epea

Maiatzaren 9tik 27ra bitartean eman dezakete izena euskara ikasi guran familia euskaldunetan egonaldiak egin gura dituztenek (944 16 24 72). 15, 30 edo 60 eguneko egonaldiak egin daitezke. Eta baldintzak dira 18 urtetik gorakoa izatea eta 8. urratsa edo horren balio-kidea gaindituta izatea.

Egusentiaz eta naturaz gozatzeko deia, Arantzazutik

Sagardo dastatze eta salmenta (apirilak 30, 11:00etan); artilearen artisaualdaketak (maiatzak 5-11, Gomiztegin); artzain-txakurren trebatzea (maiatzak 14-ekainak 11, Gomiztegin) eta Orkatzategiko ibilaldia (maiatzak 15, 09:00etan), besteak beste, iragarri dituzte Arantzazuko erakundeek egunotarako.

Iraganaren irakurketa kritikoa eta kultura politiko berria beharrezko dira Aralarrendako

Behar da, baita ere abertzaleen indarrak batzea, baina ez abertzaleak berdintzea

T.M./U.M. | ELGETA

Atzo, martitzena, Elgetako *Intxortako atea*-n aurkeztu zituzten gure ibarrerako Aralarrek aurkeztu dituen alkategai guztiak. Hain zuzen ere, bost herritan aurkeztuko da Aralar: Arrasaten, Jose Etxeberria gaur egungo zinegotziarekin; Bergaran, Juanje Amasorrainekin; Oñatin, Miren Arregi orain arteko zinegotziarekin; eta Aretxabaletan eta Elgetan, orain arte alkate izan diren Inaxio Garro eta Oxel Erostarbarekin, hurrenez hurren.

Errebatxa bako politika

Aintzane Ezenarro alderdiko bozeramailea izan zen, besteak beste, aurkezpen ekitaldian, eta hark adierazi zuen: "Bakea atzamar puntekin ukitzen ari garen honetan, aukera honek atzera bueltarik izan ez dezan zer egin dezakegun galdetu beharko diogu gure buruari".

Aralarko Debagoieneko hautagaiak, *Intxortako ate* aurrean. | TXOMIN MADINA.

Hala, iraganaren "berrikuspen kritikoa" eta "sufirimendu guztien errekonozimendua beharrezko ikusten ditu Ezenarrok aurrera begiratzeko. Bestalde, "politika ulertzeko eta egiteko beste modu bat" eskatu zuen, indarkeriaren

gaintik eta "arerio politikoa etsai ez bihurtzeko" konpromisoarekin. Hala, "gorrotorik bako, errebatxarrik bako" politika aldarrikatu eta pistolak desarmatzeaz gain, buruak ere desarmatu behar direla esan zuen.

vibike
bikes & triathlon

Zure ziklismo, running eta triatloi esparrua Gasteizen.

Parking propioa. Zapatu arratsaldeetan zabalik.

Bergarako Atea 24 • Gasteiz • www.vibike.com

Arantzazuko parketxea eta gerrako erakusketa, berriena

Ohiko bisita gidatuak ere eskainiko dituzte Turismo bulegoan Aste Santuko oporraldian

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Datozen egunotan Debagoienetik irteteko asmorik ez dutenek jakin dezatela turismorako eskaintza paregabekoa dutela zain. Elgetan, esaterako, Espainiako gerraren gaineko Intxortako ibilbide tematikoa egin ahalko da. Bihar, hilak 21, eta maiatzaren 1ean izango dira bisita gidatuak. Debagoieneko Mankomunitatetik jakinarazi dute izena aurrez eman behar dela 943 79 64 63 telefono zenbakian edo turismo@debagoiena.net helbidean. Elgetatik irten barik, *Elgeta, eremu suntsitua* erakusketa bisitatzeko aukera izango dute bisitariak, Espaloian.

Oñatik ere eskaintza zabala du gertu. Arantzazuko parketxea, esaterako, egunero bisitatu ahalko da 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Bestalde, hilaren 21ean, 23an eta 24an, unibertsitate eta parrokiako bisita gidatuak izango dira 12:15ean eta 17:00etan, 2,50 euroren truke. Egubakoitzean eta astelehenean, hilak 22 eta 25, bisita bikoitza egiteko ordu bakarria egongo da: 12:15ean;

egubakoitzean, gainera, unibertsitate 17:00etan eta 18:00etan ikusi ahalko da. Arantzazun ere egunero izango dira 16:00etan eta 17:00etan. Arrikruzteko kobei dagokienez, bihurtik astelehenera bitartean 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara ikusi ahalko dira.

Bergaran eta Gatzagan ere

Bergaran bisita gidatuak izango dituzte hirigune historikoa ezagutzeko. Interesatuak turismo bulegora joan beharko dute. Bestalde, Leintz Gatzagan gatz museoa ikusteko aukera egongo da. Hilaren 21etik 25era eta maiatzaren 1ean egunero bi bisita egiteko aukera egongo da. 12:00etan euskaraz izango dira eta 13:00etan, ostera, gazteleraz. Gainerako egunetan ere egin ahal izango dira, 665 73 95 49 zenbakian edo labidea1@euskalerrria.org helbidean aurretik eskatuz gero.

Azkenik, turismo aktiboa ere badago bailaran: hain justu ere, paintballa eta segway ibilgailuetan ibilbideak.

TURISMO BULEGOAK

BERGARAKO TURISMO BULEGOA

ASTELEHENETIK ZAPATURA

▶ 10:30-19:00

DOMEKETAN ETA JAIEGUNETAN

▶ 10:30-13:30

ESKORIATZAKO IBARRAUNDI MUSEOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA

▶ 09:00-14:00

LEINTZ GATZAGA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA

▶ 09:00-13:00 eta 16:30-20:00

ASTE BUKAERAK ETA JAIEGUNAK

▶ 10:00-14:00 eta 17:30-21:00

OÑATIKO TURISMO BULEGOA

APIRILAREN 21TIK 24RA

▶ 10:00-14:00 eta 15:30-18:30

APIRILAREN 25EAN

▶ 10:00-14:00

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

HILAREN 21TIK MAIATZAREN 1TERA

▶ 10:00-14:00 eta 15:00-18:30

Mundumirako elastiko solidarioak salgai jarri dituzte, 24 eurotan

M.B. | ARRASATE

Dagoeneko eskura daiteke aurtengo Mundumirako elastiko solidario berria honako tokietan: Elgetan, Espaloia Kafe Antzokian; Antzuolan, Izar liburu-dendan; Aretxabaletan, Asensio arropa-dendan; Arrasaten, Eroskin dagoen Harreman denda; eta Bergaran, Lazkano Kirolak denda. Horretaz gainera, 902 18 14 71 zenbakian eta www.mundumirafesta.com webgunean ere eros daiteke.

Ohikoa den moduan, mendiko materialeko marka ezagun Ternuak diseinatu du elastikoa. 24 euro balioko du eta saldutako bakoitzetik 3 euro jasoko dira. Lortutako diru kopurua



Aurtengo elastikoa. | GOIENA

Debagoieneko hiru gobernuz kanpoko erakundek martxan dituzten proiektuetara bideratuko da.

Euskara elkarteek antolatutako udaleku irekietan izena eman daiteke oraindik

M.B. | ARRASATE

Txatxilipurdik antolatutako udaleku irekietan oraindik plazak daudela eta maiatzaren 6ra arte izena eman daitekeela jakinarazi dute. Bestalde, Orioko udaleku itxietan izena ematea dagoeneko ezinezkoa dela ohartarazi dute, plaza guztiak bete daude-eta.

Garaion eta 'Kosta ala kosta'

Bestalde, Bergarako Jardun elkartearekin batera antolatutakoetan, Garaion oraindik badago lekua 12 eta 14 urte artekoendako. 14-16 urte bitarteko gazteak, ostera, *Kosta ala Kosta* udalekuetan parte hartzerantz animatu gura izan dituzte euskara elkarteek.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOAKULARITZA

Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOAKULARITZA

aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOAKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOAKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOAKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

ZABALIK

MANU ARREGI

'http://goiena.net/iritzia/'



Nuklearrik ez!

Bi mila lagun hiltzen dira urtean auto istripuetan Estatu mailan. Energia nuklearraren historian, berriz, Andujarko uranio meategiko langileen artean jasotako kantzer kopuru igoera besterik ezin da lotu ziurtasunez energia horrekin. Hori da energia nuklearraren alde daudenak erabiltzen ohi duten argumentu bat. Baina niri autoaren erabilera ebitatzea gustatuko litzaidakeen bezala, munduan zentral nuklearrik ez egotea nahi dut.

Zentral nuklearrak oso seguruak direla ezin ukatu. Baina Harrisburgen (1979), Chernobylen (1986) eta Fukuximan (2011) ikusi dugunez, arrazoi bategatik edo besteagatik, akzidente nuklear larriak gertatzen dira. Eta ez dugu arrisku horiek zergatik bizi. Edo bai?

Erraza da artikularen tituluko galderari ezetz esatea, baina hori lortzeko zer egiteko prest zaude? Orain dela urte pare bat-edo oñatiar batek Olaterraino argia ipintzea eskatu zuen Oñatiko aldizkarian, bera korrika egitera joaten omen zelako hara. Usako inguruan jarrita daude dagoeneko argi horiek. Gero eta aparailu elektriko gehiago erabiltzen ditugu, gero eta argi gehiago dago gure herrietan, haize girotuaren erabilera ere gora doa eta 2050erako auto guztiak elektrikoak izateko proposamena egin du Europako Batasunak.

Bide honek ez gaitu zentral nuklearen itxierara eraman-go, kontrako bidetik baizik. Posible da, nire ustez, energia nuklearrik gabeko mundu bat, energiaren erabilpen egokia egiten badugu. Mundu sostengagarri famatua. Era efizientean argitu behar ditugu gure herriak, nork bere etxean argindarraren kontsumoa kontrolatu behar du eta gure desplazamenduetan garraio publikoa erabili behar dugu. Hori egiteko prest ez bagaude, absurdoa da zentral nuklearen itxiera eskatzea. Gero eta gehiago izango dira, eta ez energia lobby baten nahia delako. Gure aukeraketa izango da.

"Era efizientean argitu behar ditugu gure herriak"

USTEAK USTE


MIREIA BIKUÑA | 'mbikuna@goiena.com'

IKEA'tik Guria tabernara

Ikean egon nintzen zapatuan. Sukalderako mahaia eta aulkiak erostekotan joan ginen, baina esku hutsik itzuli ginen. Hori bai, denda lepo beteta zegoen. Ordainketak egiteko ilara luzeak eta jangelan, tokirik ez. 19:30ean heldu ginen Oñatira, eta Guria tabernaren agur festara joan ginen. Hertzainak bertsioak jotzen dituen taldearen saiora heldu ginen. Taberna kanpoaldea lepo beteta (IKEA bezala), eta gazteago gineneko kantuak entzuten. Begiak itxi, eta Gari eta konpainia taula gainean zeudela zirudien -bertsioak oso onak, eta iraganeko oroitzapenak ere bai-. Baina, halako baten, norbaitek eskutik tiratu, eta, "amatxo, hemen ez dau Pirritx eta Porrotxen kanturik?". Ametsak, amets...

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | 'http://goiena.net/iritzia/'



GUTUNAK

Erakusketa egiten lagundu digutenei eskerrak

Tamara Perez
(Ekin Emakumeak elkarte) Arrasate

EKIN Emakumeak elkartearen XV. urteurrena dela eta antolatu diren ekintzen artean, argazki erakusketa izan da azkenekoa. Emakume euskaldunen garapenerako aukerak zabaltzea da elkartearen helburua, eta erakusketarekin nahi zen Debagoieneko eta Aramaioko emakumeen antzinako eta gaur egungo bizimodua azaltzea eta egiten dutena errekonozitzea.

Erakusketa burutu eta balorazioa egin ondoren, EKIN Emakumeak elkarteak bere esker ona adierazi nahi die erakusketa posible egin duten guztiei:

-Argazki ekarleei: bailarako herrietako norbanakoak eta elkarteak, hain kuttunak dituzten argazkiak ekartzeagatik, edota hainbeste kostatakoak, Intxorta 1937 kultura

elkarteak gerratearen inguruan ekarritakoen kasuan gertatzen den moduan.

-Dirulaguntza eman diguten enpresei: Auzo Lagun, Emun, Eroski, Goiena, Ikerlan, Joma, Kutxa, Lagun Aro eta baita erakusketako diseinua eta montajea egiten lagundu digun Hurbil enpresari eta azpiegitura eskura jarri digun Arrasateko Udalarari ere.

-Parte hartu duten guztiei: laguntza tekniko eman dutenei, bailarako hiru alkate emakumeei, argazki ekarleei eta ikusle guztiei: 2.048 lagun izan dira denera.

-Erakusketaren eragile nagusia izan den lantaldeari. Bera arduratu da beste baliabideak lortzeaz, erakusketaren antolaketaz eta hainbat lan egiteaz.

Erakusketarekin lortu da emakumeari protagonismoa ematea eta ondo egindako aktibitate bat euskaraz eginez, kategoria eman die euskaldunei eta prestigioa euskarari.

Horregatik guztiagatik, lagundu diguten guztiak eskertu eta eurekin konpartitu nahi dugu gure harrotasuna.

Saskibaloiko 1. urteko infantilen mutilen taldeko gurasoen eskertza

Miriam Perez
(Taldeko mutikoen gurasoen izenean) Bergara

Taldeko jokalariren gurasoen izenean, esker onik zintzoena iaz entrenatzaile jardun zuten Jokin Perez eta Iñaki Olaetxeari eta aurtengo Jose Ignacio Oyarzabal (*Txiki*) eta Mikel Garitanori (*Kurri*), gure mutikoei kiroltasuna eta lehiakortasuna zer diren irakasteagatik. Eskerrik asko saskibaloiarekiko grina guregan piztu duzuelako, eta azken bi denboraldi hauetan euren benetan atseginak elkarrekin partekatu ditugulako. Igor Zabalar, mila esker denboraldi hauetan taldeko ordezkari bezala egin duen lan bikainarengatik. Klubaren zuzendaritzari ere eskerrik beroenak klub bikain egin duzuen lan ordainezinarenagatik.

Aupa, BKE Bergara!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibea Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Monika Belastegi
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiurano, Zorrotza Martin, Itxaso Bereizbar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

©J.D. erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Jatetxe Gida



Arantzazuko Santutegia

Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI
943 78 13 13

Eskaintza www.hotelsantuariodearantzazu.com

- 40 logela.
- 200 pertsonentzako jangela.
- Eguneko menua, itundutako menuak eta astebururako menu bereziak.
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak.
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak.
- Eta orain sagardotegiko menua.

Egunero zabalik



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita.



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

Eskaintza www.errekajatetxea.eu

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita.
- Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo sahieskiarekin).
- Bertako sagardoa.
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.



Pildain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

Eskaintza

- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeratan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa,... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independientea su baxuarekin.

Astelehenetan itxita



Soraluze

Arantzazuko bidea, 1 km / OÑATI
943 71 61 79

Eskaintza

- Karta.
- Bi jangela.
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak.
- Aste bukaerako menu bereziak.
- Eguneko menuak.

Domeka gauean itxita



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

Nerea Elias | Farapi antropologia aplikatuko enpresako kidea

"Emakumezkoak bezain gaituak daude gizonezkoak zaintzarako"

- ▶ Adinekoak zaintzeko jendarte osoa inplikatu beharraz ari da Nerea Alias
- ▶ Gaur egun, "adinekoa zaintzea esparru pribatuaren esku dagoen kontua da"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Erizaintzaren gaineko jardunaldiak egin zituen joan den astean Arizmendik Arrasaten. Gaia alzheimerria izan da eta hizlarien artean egon zen Nerea Elias, Farapi enpresako kidea. Antropologia aplikatuko enpresa da Farapi. Antropologiaren ikuspegiak eta teknikak erabiltzen dituzte eguneroko bizitzako kontuak ikertzeko eta ikerketen ondorioetatik proposamen aplikatuak egiteko.

Zer da Farapi?

Antropologia aplikatuko enpresa bat. Gure helburua da antropologiaren ikuspegia eta teknikak erabiltzea, eguneroko bizitzan hainbat ikerketa egiteko eta ikerketatik ateratako hainbat ondorio ateratzeko eta zenbait proposamen aplikatu egiteko.

Gero eta jendarte zaharragoa daukagu. Premia eta erronka berriak sortzen zaizkio jendarteari.

Datu demografikoak oso agerikoak dira. Gero eta jendarte zaharragoa daukagu eta aldaketa sozial handiak izan dira zaintzari dagokionez. Orain arte zaintza etxetik egin da, familiak arduratu dira. Eta oraindik ere etxean asko zaintzen ditugu gure zaharrak. Eta emakumeen ardurakoa izan da etxeko senide adinekoak, guraso eta bestelakoak, zaintzea. Baina,aldi berean, emakumea gero eta gehiago dago lan merkatuan eta erronka berriak sortzen ditu zaintzaren arazoak.

Zahartzaroak berez dakartza urritasun fisiko eta buruko gaixotasun edo demenziak ere.

Bai, antropologok ikusten dugu zahartzeak bi dimentsio dauzkala: batetik, ezaugarri fisiko eta biologikoen galtze hori, mugikortasuna edo bestelako gaitasun intelektualean galtzea dakar horrek. Baina, bestetik, zahartzeak berez dakartzan balio aldaketak ere aintzat hartu beharrekoak dira. Gaur egun zahartzaroak kutsu negatiboa dauka, zaharrak etxean edukitzea karga moduan hartzen da eta horrek baldintza dezake zelan zainduko dugun zahar hori, zenbat denbora eskainiko diogun...

Egoera berri baten aurrean gaude eta aldaketak ere berria izan behar du, ezta?

Esparru emankorra bakarrik hartzen dugu kontuan askotan: fabrikako lana, gizakiok, produktibo garen neurrian ematen zaigun balioa. Baina esparru horri eus-



Nere Elias, Farapi enpresako kidea, Kulturaten. | JULEN IRIONDO

teko, azpiko esparrua dago, esparru ekarkorra deitzen dioguna eta kritika feministatik eratorri dena. Jendartea sostengatzeko, hau da, produktioari eusteko, beste esparru emankor edo ugaltzaria ere aintzat hartu behar da. Ikusezinak diren lan guztiak: umeen zaintza, etxeko lanak, janaria, zaharren zaintza... Eskema ohiko horri, hortaz, gehitu behar diogu ardura pribatu eta indibidualizatuak izan direnak. Bistara ekarri behar ditugu eta ardura sozial moduan aldarrikatu. Denon arazoa eta lana dela, alegia.

Zaintza hori, hortaz, jendarte osoaren ardura da.

Bai, orain, nagusia zaintzea familiaren, hau da, esparru pribatuaren esku dagoen kontua da. %80 familia barruan zaintzen da. Nahiz eta gero eta baliabide publiko

"Gaur egun zaharrak etxean edukitzea karga moduan hartzen da"

"Zaintza, emakumeen ardura izan da eta da, oraindik ere"

gehiago eskaini gizarte zerbitzuetara. Adinekoek mundu produktiboan egon direnean jendarte osoari onura ekarri badiote, mundu produktibo horretatik beste egoera batera pasatzen direnean logikoa da guztion ardura, jendarte osoarena, izatea haiek zaintzea edo haiez arduratzea. Esaterako, umeak zaintzea gurasoen ardura da, baina gero eta baliabide gehiago eskaintzen zaie administratibotik. Jendarte osoaren onurarako delako. Bada, zahartzaroarekin eta dependentziarekin ere horixe gertatuko beharko luke. Dependentsia gizaki guztioi dagokigu, sortzetikoa da, jaiotzen garenetik dakigu edozein unetan laguntza beharko dugula bizi izateko. Ardura hori geroz eta modu zuzen edo bidezkoagoan banatu, guztiondako onuragarriago.

Teknologia berriei ze probetxu atera ahal zaie alor honetan?

Ahalik eta etekin handiena ateratzeko, aplikazio prozesua ondo diseinatu behar da. Eta prozesu hori zaintzailerik edo gaixorik gabe egitea ez da komeni, bi horiek baitira prozesuaren muina edo agente nagusiak. Pertsonari eman behar zaio protagonismoa, gaixoari batik bat, baina baita haren testuinguruari: zaintzaileari, familiari.

Orain arte, batik bat, emakumezkoen kontua izan da gaixoak edo zaharrak, zaintzea...

Eta alde handiarekin, gainera. Familian horixe izan da emakumeari eman zaion rola. Zaintza, orokorrean, emakumeen ardura izan da eta da, oraindik ere. Sortzez emakumeak halako lanetarako gaituagoak izango bagina bezala... Horri kritika handiak egin zaizkio, batez ere mugimendu feministatik, baina, halere, diodan moduan, oraindik ere emakumeok daroagu zaintzaren zama nagusia. Emakumeok lotu izan gaituzte esparru pribatuarekin, familiarekin, goxoagoak, emozionalagoak... garelakoan, zaintzarako egokiagoak garelakoan... Baina agerikoa da baiez-tapen hori gezurrean oinarritzen dela; eta, gainera, gero eta gizonezko gehiago daude zaintzari lotuak. Umeen zaintzan, esaterako, geroz eta gizonezko gehiago

"Emakumeok beti lotu izan gaituzte esparru pribatuarekin"

"Emakume adindun batek laguntza behar badu, senarra ez da zaintzailea"

dago, nahiz eta ematen duen errazagoa dela gizonezkoendako umeen zaintza adinekoena baino. Baina, inolako zalantzarik gabe, gizonezkoak emakumezkoak bezain gaituak daude zaintzarako, ume zein adinekoak zaintzeko.

Lan merkatuan gero eta emakume gehiago dagoen neurrian, zaintza emakume eta gizonezkoen arteko kontua dela agerian geratzen da, ala?

Bai, baina tranpa dauka horrek. Izan ere, lan merkatura buru-belarri sartu da emakumea azkeneko urteotan, baina, bestalde, gizonezkoa ez da maila berean esparru familiarrean, etxekoan, inplikatu. Eta administrazioak ere ez du bete emakumeek etxean utzitako hutsunea. Emakumearen gainera etorri da kanpoko zein etxeko lana. Hori da errealitatea, nahiz eta gauzak aldatzen ari diren. Egoera horrek askotan, gainera, emakumeen bizitza profesionala ere baldintzatzen du.

Zaintzailearen adinari dagokionez esan duzue %20 dela 65 urtetik gorakoa, ezta?

Bai. Adinekoen kasuan, zaintzaile asko eta asko dira 65 urtetik gorako emakumeak, eta, kasu gehienetan, haien senarrak edo bikotekideak zaintzen dihardute. Alderantzizkoa gertatzen denean, hau da, emakumezko adindun batek laguntza behar duenean, haren senarra ez da emaztearen zaintzailea.

HERRIAK

BERGARA

Miguel Altuna berria iritsi bitartean urbanizazio lanekin hasiko da Jaurlaritzza

Mayc ondoko lursailean datozen egunotan hasiko da lanean Etxebizitza saila
Eraikin berriko proiektua berraztertu eta adjudikatzea da asmoa

Hasiera baten, Miguel Altunako institutu berria 2009-2010 ikasterterako Mayc ondoko lursailean martxan egotea zen asmoa. Atzerapen nabariarekin dator proiektua.

ENEKO AZKARATE

EDU MENDIBIL | BERGARA

Aurreko astean egon nintzen Lakuan, eta, hantxe agindu zidatenez, Aste Santuaren ostean hasiko dira Mayc inguruko urbanizazio lanak". Horixe adierazi digu Iñaki Larrañagak, Miguel Altunako zuzendariak. Proiektua uste baino gehiago atzeratu da, eta oraingoz Etxebizitza saila hasiko da lanean. Agurne Barruso alkatearen hitzetan, "Miguel Altunako adjudikazioa martxoan abian jartzekoa zen eta geldi dago oraindik; behin eta berriz esan dugu ez zegoela urbanizazio lanei itxoin beharrik adjudikazioarekin has-teko". Esan bezala, dezente atzeratzen ari da proiektua; hasiera baten, Miguel Altunako ikastetxe berria 2009-2010 ikasterterako martxan egotea aurreikusitua zuten. Baina Udalak eta Jaurlaritzak orain dela 10 bat urte sinatutako akordioa ez da gauzatu, besteak beste, ordutik gobernuan izandako aldaketa eta proiektuaren

DATUA

100

ETXEBIZITZA

Udala eta Jaurlaritzaren arteko akordioaren arabera, 100 etxebizitza (babes ofizialekoak tartean) egingo dira Mayc ondoan.

inguruko iritzi ezberdinengatik. Eraikin berriko proiektua Jose Manuel Ibargoien arkitekto donostiarrak egin zuen bere garaian; proiektua berraztertu egin behar du, adjudikazioa egin baino lehen.

Proiektua berraztertu

Miguel Altuna berria Mayc lan-tegiko ondoko lursailan kokatu-tuko dute. Ibargaraiko eraikin zaharrenekin nolabaiteko lotura

izateko, bi eraikin lotuko dituen zubi bat izango du Miguel Altuna berriak. 11.000 m²-ko lursaila da guztira eta 44 gela aurre-kosten dira, teknologia gelak, laborategiak eta tailerrak tartean. Espezialitate mekaniko, elektriko edota kimikoetako tailerrak beheko solairuan joango lirake. Era berean, 200 bat ere lagundako ospakizun gela bat jasotzen du proiektuak. Mugikortasun beharrei egokitutako eraikina izango da eta Miguel Altunako arduradunek arkitekto taldearekin harreman estua izan dute azken urteotan. Logikoaenez, ingurumenari buruzko araudia bete behar du tailer-gela berriek. Horrez gain, energia berriztagarrien aldeko apustua egin nahi dute; horrela, plaka fotovoltaikoek edota haize-sorgailuek berebiziko garrantzia izango dute.

Lur azpiko aparkalekua (45 plaza-rekin) eta beste 75 aparkaleku plaza dira beste zerbitzue-

tako batzuk. Hasiera baten, eraikin berriko aurrekontua 12 milioi ingurukoa da, baina esan bezala, berraztertu egin behar du dute orain.

Udalak 2001ean utzi zion Jaurlaritzari Mayc ondoko terrenoa, permuta baten bidez. Akordioaren arabera, Miguel Altu-

nako gaurko bi eraikinetatik, berrienarekin (Seminariotik gertuen dagoena) geldituko da Bergarako Udala. Eraikin zahar-rean, berriz, etxebizitzak eraikitzea da asmoa; Jaurlaritzak eraikitakoaren 2/3 izango du eta beste herena Udalaren esku geratuko da.

Ibilbide luzeko ikastetxea

Oinarrizko Lanbide eta Ehungintza Eskola izenarekin, 1928an jarri zuten abian gaurko Miguel Altuna. Aurretik beste bi eskola zeuden: Bergarako Industria Eskola (1850-1860) eta Arte eta Lanbide Eskola (1903-1928). Elementala Seminarioan kokatu zen, eta, Espainiako gerrako parentesiaren ondoren, 1944ko urriaren 16an ateak ireki zituen berriro. 1955eko legearekin Bergarako Industria Maisutza Eskola izatera igaro zen eta Ibargaraiko gaurko eraikinen inaugurazioa 1965ean egin zuten. 1990eko hamarkadan etorri zen kalitaterako jauzi handia. ISO 9000 ziurtagiria jaso ondoren, Investors in People delakoa eskuratu zuen 2005ean. Ziurtagiri biak lortzen Estatuko lehen eskola izan zen, beste lau ikastetxerekin batera. Hezkuntza eskaintza handituz joan da, erreferente izateraino. Bada, ikastetxeak Miguel Altuna irakasle eta apaiz zenari zor dio izena.



Bildotsak burrunztian. | GOIENA

San Andresko jaiak beteta datoz hurrengo astean

U.M. | ARRASATE

Apirilaren 29an, 30ean eta maiatzaren 1ean ospatuko dituzte San Andresko jaiak. Bi herri bazkari eta luncha egingo dituzte: gazteen herri bazkaria egubakoitzean, apirilaren 29an, gazte txoko kanpoan (eguraldi txarra bada, barruan). Auzotar guztiendakoa zapatuan, gaitariak alaitutakoa eta burrunztian bertan egingo dituzte; Elorrioko Karlos Ibarrondo burrunztian aditua etorriko da lan hori egitera. Eta 80 urtetik gorakoendako, berriz, luncha emango dute, domekan.

Kontzertuak, berbena...

Bestelakoan artean, berriz, barikuan, 18:00etan, disko festa eta 22:30ean kontzertua (La Madriguera, Despierta McFly eta Lord Witch) izango dira. Zapatuan, ume-parkea (11:00-13:30 eta 16:00-18:30); gazteendako patata tortilla lehiaketa (11:00) eta 22:00etan, berbena, Arrasateko Transit Blues eta Bergarako Emon taldeekin.

Eta domekan, 10:00etan artisauro postuak ipiniko dituzte, 11:00etan kalejira egingo du Erraldoi eta Kilikien Konpartsa Txikiak; 12:00etan herri kirolak izango dira (Saralegi eta Mugerza aizkolariak eta Idoia Etxeberria harri-jasotzailea); 12:30ean, nagusiendako meza eta 16:00etan, Gorriti eta bere animaliak ibiliko dira Cordoba y Oro plazan.

Bildu eta Ezker Batua ere gertu, politikako "borrokarako"

Sindikalista bi (LAB eta CCOO) dira alkategaiak, hurrenez hurren

UBANE MADERA | ARRASATE

Arrasateko Udalerako aurkeztu diren alderdien artean biren zerrendak jakitea besterik ez zen falta, eta asteon jakinarazi dituzte biek ala biek, Bilduk eta Ezker Batuak, hurrenez hurren. Bien kasuan, gainera, sindikalista bi (LAB eta CCOO) dira zerrendaburu.

Sindikatu politikara

Bilduren kasuan, Inaxio Azkarraga-Urizar da koalizioak aurkeztu duen alkategaia. Elorriarra da hura (1962), baina ondo ezagutzen du Arrasate, 26 urte daramatza -eta udalerrian bizi izaten. Hiru seme-alabaren aita, Zuzenbidean lizentziaduna da, UNEDetik. Azken sei urteak LAB sindikatuaren eman ditu, administrazioko eskualdeko arduradun moduan. Beraz, estreinaldia du politikagintzan.

Hala ere, haren esanetan, sindikalizazioaren jardunak lagundu egingo dio politikari: "Sindikalgintzan gauza bat egiten da: hitz egin, negoziatu eta akordioetara ailegatu, eta uste dut hori baliagarria dela". Besteak beste, gaineratu du "erronka" moduan hartuko duela Arrasateko hautagaitza, eta Bilduri baiezkoa ematea kosta egin bazaio ere, "ilusioarekin eta lanerako gogoarekin" egingo diola aurre erronka berriari.

Azkarraga-Urizarren bidailagunak ere zehaztuta daude



Inaxio Azkarraga-Urizar. | U.M.



Roberto Berrio eta Juan Luis Merino, Kulturategi kanpoan. | U.M.

BILDUREN ZERRENDA

- ▶ Inaxio Azkarraga-Urizar
- ▶ Amaia Larrañaga
- ▶ Ander Rodriguez
- ▶ Iraia Sola
- ▶ Josu Pereda
- ▶ Maider Morras
- ▶ Omer Arregi
- ▶ Miren Iratxe Zeziaga
- ▶ Juan Antonio Barriocanal
- ▶ Joseba Erramun Askasibar
- ▶ Kepa Urteaga
- ▶ Miren Josebe Landaluze

(ondoko taulan). Eta hautagaiek erakusten duten moduan, politikari esperientzia luzea duten zinegotzi edo zinegotzi ohiak (Amaia Larrañaga (EA), Ander Rodriguez (Alternatiba) eta Juan Antonio Barriocanal (EA) esperientzia bakoekin elkartu, eta hala osatu dute zerrenda.

Etxebizitza, berdintasuna...

Ezker Batuak, berriz, astelehenean aurkeztu zuen Roberto Berrio alkategaiak Arrasaterako dituen ildoak, eta baita zerrenda osatu duten lagunak izenak ere.

Alderdi ezkeriarren programari dagokionez, labur esanda, etxebizitzarako eskubidea,

berdintasuna, ingurumena eta herritarren parte-hartzea defendatuko ditu Ezker Batuak.

Etxebizitzaren kasuan, alokairua bultzatuz. Berdintasunaren kasuan, emakumeen kontrako biolentziarako programan indarrak ipiniz. Ingurumenari dagokionez, bereziki, Udalatx babestu guran (barruko harrobiaren itxiera barne) eta herritarren parte-hartzearen kasuan, besteak beste, udal aurrekontuetan partaidetza hori lortu arte.

Zerrendari dagokionez, berriz, lehen hiru hautagaien izenei eman diete garrantzia: Pilar Gartzia arrasatearra eta Iñaki Gartzia mutrikuarra ditu lagun Berriok.

Gazteen txapelketa arrakastatsuen ostean, elkarleen dokea tokatzen da orain

Ostiral Santurako egin dute hitzordua, 10:00etan, Monterron ondoko zelaietan

U.M. | ARRASATE

Dokean jokatzeko hitzordua 10:00etarako egin arren, 09:30erako hasiko dira lehiakideak azaltzen Monterron ondoko zelaira. Batetik, izenak eman eta lehiaketarako

bikoteak antolatzeko; eta bestetik, "beroketa ariketak egiten ibiltzen" direlako, Juan Luis Arkauz SUDCe-ko presidentearen esanetan.

Kontuak kontu, hasi 10:00etan hasiko da elkarleen arteko doke

txapelketa eta "12:30-13:00 aldera bukatuko da". 14-15 bat bikotek parte hartuko dutela aurreikusiko dute antolatzaileek; beraz, 30 bat lagunek parte hartuko dute elkarren gastronomikoen izenean, eta haiei gehitu behar zaizkie udal ordezkariek. Labur esanda, ez dela "anbienterik" faltako Monterron ondoan Ostiral Santuan.

60 kilo sardina

Are gehiago kontuan hartzen badugu 60 bat kilo sardina erre eta ardoarekin lagunduta partituko dituztela debalde, bertaratzen diren guztien artean. "Eta guzti-guztiak gastatuko dira, batzuek erdi-bazkaldu eta guzti egiten dute-eta", kontatu du Arkauzek.

Eta dokean lehia ziurtatuta dago, beraz; izan ere, elkarteko eta Udaleko lehiakideen artean galtzen duenak ordaindu behar izaten ditu sardinak.

OHARRAK

LIBURUTEGIA ITXITA

Datozen jaiegunetan itxi egingo dute Udal Biblioteka, Pazko astera arte. Martitzenetik aurrera, berriz, goiz eta arratsalde zabalduko dute, honako ordutegiarekin: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00.

BAZ-EN ORDUTEGIA

Bihar eta etzi itxi egingo dute Biztanleen Arreta Zerbitzua. Zapatuan, berriz, 09:00etatik 13:00ak arte zabalduko dute eta Pazko astean normal jardungo du: 08:30etik 19:00ak arte.

KIROLDEGIA ETA UARCAPE

Jaiegunetan 08:30etik 14:00ak arte zabalduko dute kiroldegia. Pazko astean, berriz, egubakoitzera arte 07:00etatik 22:00ak arte eta zapatuan 08:30etik 20:30ak arte. Uarkape pilotalekua, berriz, jaiegunetan itxita izango da eta Pazko astean egubakoitzera arte 09:00etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 21:00ak arte zabaldu eta zapatu eta domekan itxi egingo dute.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



APIRILAK 29, OSTIRALA

13:00 Auzoko GAZTEEN BAZKARIA gazte txoko kanpoan; egurraldi txarra eginez gero, barruan.

Bazkariko txartelak eskuratzeko gazte txokoan galdetu.

18:00 DISKO FESTA gazte txokoan.

19:30 Etxafuegoak eta buruhandiak.

22:30 Rock taldeak.

- LA MADRIGUERA (Arrasate)
- DESPIERTA MCFLY (Zaragoza)
- LORD WITCH (Bergara)

APIRILAK 30, LARUNBATA

10:00 DIANA.

11:00-14:00/18:30-20:30 ESKULAN ETA PINTURA

ERAKUSKETA: EMASAN ELKARTEA (San Andresko emakumeak); Etxaluzeko 2. solairuan. H eta I geletan.

11:00-13:30 HAUR PARKEA, aurpegia margotzeko tailerra, eta abar. Bedoñabeko patioan.

11:00 GAZTEENTZAKO PATATA TORTILLA LEHIAKETA.

Nork bere osagai bereziak eroan beharko ditu (patatak, arrautzak eta olioak gazte txokoak jarriko ditu).

13:00 KRISTON POTEOA Bilboko Gaitariekin

14:30 HERRI BAZKARIA. Bildotsa entsaladarekin. Gaitariekin alaituta.

16:00-18:30 HAUR PARKEA, aurpegia margotzeko tailerra, eta abar. Bedoñabeko patioan.

18:00 KIXKA ANTZERKI TALDEA (Txuri-Beltz). Hiruki plazan.

22:00 etan KONTZERTU-BERBENA

- TRANSIT BLUES (Arrasate)
- EMON (Bergara)

MAIATZAK 1, IGANDEA

10:00 ETXAFUEGOAK, esnatzeko. ARTISAUEN FERIXIE.

11:00-14:00/18:30-20:30 ESKULAN ETA PINTURA

ERAKUSKETA: EMASAN ELKARTEA (San Andresko emakumeak); Etxaluzeko 2. solairuan. H eta I geletan.

11:00 KALEJIRA Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa Txikiarekin eta Arrasateko Gaitariekin.

11:00-13:30 HAUR PARKEA, aurpegia margotzeko tailerra, eta abar. Bedoñabeko patioan.

12:00 HERRI KIROLAK:

- Aizkolariak: Ruben Saralegi eta Mugertza.
- Harri-jasotzaileak: Idoia Etxeberria.

12:30 Gure NAGUSIEN OMENEZ MEZA SANTUA.

13:30 LUNCHA/BAZKARIA 80 urtetik gorakoentzat.

16:00 GORRITI eta bere animaliak (Cordoba y Oro plazan).

16:00-18:30 HAUR PARKEA, aurpegia margotzeko tailerra, eta abar. Bedoñabeko patioan.

18:00 Kurtze Txiki plazan umeendako TXOKOLATE-JANA eta IKER DIAZ, antzerki musikala (euskaraz).

19:30 Jaiak bukatzeko, ETXAFUEGOAK.



**ARRASATE OPTIKA • LORAMENDI KIROLAK • ARANZABAL SUKALDEAK
KAPIKUA OPARIAK ETA OSAGARRIAK • RAOS SARRAILA-DENDA. 24 ORDU
AZPILIKUETA HARATEGIA • EQUS TABERNA • LIZARRALDE KIROLAK • RITA FRUTATEGIA
IZASKUN ARRANDEGIA • AVENIDA KAFETEGIA • OIHAL ETXERAKO EHUNGINTZA
TEKNOBERRI INFORMATIKA • URRETXU TABERNA • TANTAKA TABERNA
GIZADI ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA • PIPPOL TABERNA**

ONDO PASAU JAIETAN!

Pagola-Loidiko ubidearen ibilbidea ezagutzeko bisita gidatua hilaren 22an

Turismo bulegoak eskainiko du Egubakoitz Santuan, eta parte hartzeko izena eman behar da

M.B. | BERGARA

Dagoeneko zabaldu dute turismo bulegoa Aste Santuko oporraldiari begira. Maiatzaren 1era arte egongo da zabalik, egunero, 10:30etik 19:00etara, domekan eta Pazko-astelehenean izan ezik. Bi egun horietan goizeko ordutegia izan-

go du: 10:30etik 13.30era, hain justu ere.

Herriko eskaintza turistikoaren eta zerbitzuen gaineko informazioa emateaz gain, Bergarako erdigune historikoa eta ondarea ezagutzera emateko bisita gidatuak ere eskainiko ditu. Bisita horiek

doakoak izango dira eta egunero eskainiko dira, goizez eta arratsaldez. Horretarako, turismo bulegoan eman behar da izena.

Eskaintza zabalagoa

Aurten, gainera, bisita gidatu estandarraz gain, bisita berriak ere eskainiko ditu turismo bulegoak.

Apirilaren 22an, Egubakoitz Santu eguna, Udalak proiektuan duen Pagola-Loidiko ubidearen xenda ezagutzeko bisita gidatua egingo dute (ordu eta erdi inguru iraungo du). Informazioa jasotzeko eta izena emateko turismo bulegora jo behar da (943 77 91 28 eta turismo@bergara.net).

Turismo bulegoak ematen dituen zerbitzu guztiak, bisita gidatuak barne, herrira datozen bisitarientzat eta herrian gelditzen diren bergararentzat eskaintzen ditu Udalak.

Udalak Pazkoetako kartel lehiaketa deitu du

Lanak aurkezteko epemuga maiatzaren 2a da

M.B. | BERGARA

Pazkoetako kartel lehiaketa deitu du Udalak, eta Bergaran erroldatutako edozein pertsonak parte har dezake.

Kartelek 24x34 zentimetroko neurria izan beharko dute eta formatuak, berriz, bertikala izan beharko du. Bestalde, papelean inprimatuta eta kartoizko euskarri baten gainean aurkeztu beharko dira. Era berean, kartelaren kopia digitala CD informatiko baten ere aurkeztu beharko da.

Kartelaren teknikari dagokionez, librea izango da, baina

ondorengo testua eroan beharko du nahitaez: *Pentekoste jaiak 2011, Bergara*.

Lehiaketara aurkeztutako lanek originalak izan beharko dute, eta beste lehiaketa baten inoiz saritu gabeak. Udalak plagioa egon den zantzurik ikusten badu, sortutako kalteen aurrean kalte-ordainak eskatu ahal izango dizkio plagioaren egileari. Sariari dagokionez, 600 euro jasoko ditu lan onenaren egileak.

Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 2a da, 13:00ak baino lehen, kultura etxean.

Itzuli dira etxera Groenloko ikasleak

Mariaren Lagundia ikastolak Holandako Groenlo herriko ikastetxe batekin egiten duen elkartrukearen barruan, hango ikasle taldea izan da hemen egunotan –Mariaren Lagundikoak urrian izan ziren han—. Esperientzia oso aberasgarria izan da guztiendako, eta, hemengo familietan egin dutenez egonaldia, gure ohiturak bertatik bertara ezagutu ahal izan dituzte.



MARIAREN LAGUNDIA



ARANZADI IKASTOLA

Dantzariak eta idi pareak sortu zituzten Aranzadikoek

Auzolanartean 2011 programaren barruko azkeneko ekintza egin dute Aranzadiko batxilergoko 90 gaztek bi taldetan: taldeetako batek, San Martzialen, *Mundua denon esku* eta *Festa denona* artelanak sortu zituen –bi dantzari eta idi pareak, gurdi eta guzti–; beste taldeak, berriz, bi mosaiko egin zituen goiko trenbidean: batean, natura eta euskara lotu zituzten aurpegi erraldoi baten; bestean, *AHTri STOP* lelopean mundua zanpatzen duen tren irudikatu zuten.

NIRE USTEZ

ANDRES OSA
'SAKONA'



Tinko, ez etsi

Espainol unionistek, PSOE eta PP bereziki, eginahalak egiten dihardute Ezker Abertzale eremua *Baño Marian* ipini eta abertzaletasunaren azala kizkuratu eta higuigarri bihurtzen.

PSOEk eta PPk hauteskundeak egiten dituzten lehiak berebiziko bultzada ematen dio unionisten erasoari. Sokatiran ari dira nork boto gehiago jaso. ETA desgitearekin batera Ezker Abertzalea zatitu eta ahuldu nahi dute. Izan ere, Ezker Abertzaleen oinarria Espainiarekin etetea da independentzia gauzatuz, Jaime Mayor Orejak oso ongi esaten du. Epe laburrean, herritarren babesa gauzatzen den heinean, independentziaren

aldarria tsunami politiko bihurtu daiteke.

Horren aurrean erne! Malgutasunez jokatzeari beharrezkoa da, baina neurri egokian ez bada egiten kalte handia ekar dezake. Espainol tertuliano bati entzuna da: "Ezker Abertzalea, ETArekin batera, Gobernu bera baino urrutiago joan da eta Alderdi Popularraren parean jarri da". Argi!

Gaur egun, Euskal Herriko gizarte baratzean independentziaren aldeko joera eta kontzientzia erne bada, jende askoren borrokak, sakrifizioak, entregak eta kartzelak, besteak beste, lurra landu dutelako da. Iragana madarikatzea eta ukatzea politikoki larria eta esker txarrekoa izatea da.

Zorionak, Zornotzako Mandelari eta elkartasuna gelditu direnei.

"Iragana madarikatzea politikoki larria da"

Jesus Mari Elortza da Bilduren alkategaia maiatzaren 22rako

Sei alderdi lehian Bergaran: EAJ, Aralar, PSE-EE, EB, Bildu eta Berdeak

EDU MENDIBIL | BERGARA

Alkate berria izango dugu Bergaran eta aurpegi berriak dira nagusi maiatzaren 22ko udal hauteskundeetara begira. Bildu izan da azkena alkategaia aurkezten, eta, horrela, sei alderdi izango dira lehian udalbatza osatzeko. Jesus Mari Elortza Uberako auzo-alkatea dugu Bilduren zerrendaburua. Zortzi urte daramatza Uberako auzo-alkate. Elortzarekin (51 urte) batera honako hauek dira zerrendan: Jaione Isazelaia, Aranzadi ikastolako irakaslea; Lauri Askargorta, EAko zinegotzia; Leire Iruin, irakaslea; Maren Belastegi, fisioterapeuta; Ariane Kareaga, irakaslea; Piti Madariaga, Elayko langilea eta EAko hautagaia izandakoa; Maider Arregi, ingeniaria; Javi Bengoa, Miguel Altunako irakaslea; Alan Gutierrez; Maria Amalia Albeniz; Javier Garmendia (erretiratu); Nagore Iñurrategi, MUko irakaslea; Iñaki Arizmendiarieta; Aranzazu Zabaleta; Ander Elortza; Nerea Agirrezabal; Nora Madariaga; Elsa Manso; eta Iratitz Arizabaleta.



Bilduren hautagaiak, Errotalden ateratako argazkian. | BILDU

Hiru gizon eta hiru emakume

PSE-EEko zerrendaburua Mari Karmen Barrenetxea da orain dela lau urteko hauteskundeetako errepikatzen duen alkategaia bakarra. Aintzane Oiarbide jeltzalea, Juanje Amasorrain (Aralar), Antonia Galiot (Ezker Batua) eta Josu Garitaonandia (Bergarako Berdeak) ditugu alkatezarako gainerako hautagaiak. Hiru emakume eta hiru gizon.

Aralarrek Juanje Amasorrain dendari ezaguna aukeratu du alkategaia izateko. Justina Elexpuru joango da bigarren tokian eta Rafa Sanchez zerrendako hirugarrena da. EAJk, bestalde, Aintzane Oiarbiderengan jarri du konfiantza eta harekin batera Rafa Amasorrain, Juan Jesus Alberdi, Maite Barrena, Ander Alberdi, Iruñe Galarraga eta Lander Arregi dira lehenbiziko tokietan. Amasorrain zinegotzia da udaltxean jardundako bakarra.

PSE-EEri dagokionez, esan bezala, Mari Karmen Barrenetxea dugu zerrendaburua eta bigarren eta hirugarren tokian Francisco Javier Garai zinegotzia eta Javier Cendoya hainbat urtean zinegotzi jardundakoa ageri dira.

Bergarako Berdeak da beste nobedadeetako bat. Josu Garitaonandia (43 urte) Metagrako biltegi langilea da zerrendaburua eta harekin batera Juncal Arruti eta Aiert Lizarralde eta Martin Garmendia ELayko langileak daude zerrendako lehenbiziko tokietan.

OHARRAK

EAJ: POSTA BIDEZKO BOTOA

Botoa postaz eman ahal izateko bulegoa zabalik dago batzokian, 11:30etik 13:00etara eta 18:30etik 20:30era. Eskaearak egiteko azken eguna maiatzaren 12a da.

KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAKO LANAK

Maiatzaren 6ra arte dago zabalik Koldo Eleizalde lehiaketarako lanak entregatzeko epea. Argibideak: www.bergara.net.

1965EAN JAIOTAKOAK

1965ean jaiotakoek Tartufon egingo dute urteroko afaria. Depor tabernan elkartuko dira, 19:00etan. Izenematea, Ariznoa tabernan.

AVILESKO MARGOLARIAK AROZTEGIN

Avilesko margolarien erakusketak maiatzaren 1era arte dago ikusgai Aroztegin, ohiko ordutegian. Jaiegunetan goizez bakarrik dago zabalik, 12:00etatik 14:00etara.

AKUARELA IKASTAROA

Beart elkartearen eskutik akuarela-tailerra izango da maiatzaren 7an eta 8an, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Armando Juez San Salvador izango da irakaslea. Bearteko bazkide ez direnendako prezioa 125 euro da. beart.elkartea@gmail.com.



Saskibaloilari gaztetxoak, txapeldun

Bergara KEko infantil mailako saskibaloilari taldeak 43-39 irabazi zion Añorgako Internacional taldeari domekan, Gipuzkoako finalean. Astigarragan jokatuako finalean emoziorik ez zen falta izan; amaieran, gaztetxo bergararrek ondo ospatu zuten garaipena. BKEko arduradunek Txiki Oiarzabal eta Mikel Gari tano Kurri entrenatzaileak, Igor Zabala delegatua eta iaz gaztetxoekin jardundako Jokin Perez eta Iñaki Olaetxea zoriondu nahi dituzte.

SANTOS



Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Amaia Intza da Hamaikabaten zerrendaburua udal hauteskundeetarako

MIREIA BIKUÑA | OÑATI
Hamaikabatek aurkeztu du udal hauteskundeetarako zerrendaburua: Amaia Intza Bartolome izango da. Egun, zinegotzia da Udalean, EAk duela lau urte atara zituen hiruretako bat. Zatiketaren ostean, hiru zinegotziak H11-era pasa ziren.

Amaia Intza Kultura zinegotzia da gaur egun Oñatin. Hamaikabat alderdiak zerrendako lehen bost izenak ezagutarazi ditu: Amaia Intza Bartolome, Pello Telleria Goenaga, Ernesto Murgiondo Billar, Argiloain Perosterena Arregi eta Joseba Agirre Urtzelai.

Hamaikabat alderdiak Oñatin bakarrik aurkeztuko du zerrenda. Debagoieneko gainerako herrietan ez dute zerrendarik osatu.

Gainerako alderdiak
H11-eko zerrendaburua ezagututa, egun Udalean ordezkari

duten alderdi gehienek aurkeztu dituzte euren hautagaiak: Lourdes Idoiaga (EAJ), Mikel Biain (Bildu), Miren Arregi (Aralar), Karmelo Perez de Almaraz (EB-Berdeak) eta Manoli Barreneetxea (PSE-EE), hain justu ere. PPre zerrendaburua oraindik ez dute aurkeztu.



Amaia Intza. | GOIENA

Ganbara Txikikoak Sevillara eta Ganbara Gaztekoak Zaragozara

Sevillan kontzertu bi egingo dituzte Pazko astean: hilaren 27an eta 28an

M.B. | OÑATI
Ganbara Txiki eta Gazte abesbatzako kideek kontzertu gehiago dituzte esku artean. Ganbara Txikikoak Sevillan egingo dituzte bi kontzertu datorren astean eta Ganbara Gaztekoak Ejea de los Caballerosko lehiaketa prestatzen dihardute. Biek ala biek Pazko astean gogor egin beharko dute lan.



Ganbarako kideak, zuzendariarekin. | GANBARA

Sevillako abesbatzen federazioak egindako gonbidapena onartu, eta Ganbara Txiki kontzertu bi egingo ditu; hain justu ere, hilaren 27an eta 28an: lehen San Vicente elizan eta bigarrena Francisco Guerrero musika kontserbatorioan. Sevillara eramango duten programan abesti eta doinu ezberdinak uztartuko dituzte eta *Bizitzaren maitasun harian* proiekturako taldearentzat propio sortutako piezak eskainiko dituzte.

Sevillarako bidaia egingo dute hilaren 25etik 29ra. Kantuan egiteaz gain, turismoa egiteko aukera izango dute: alde batetik, Sevilla ezagutzeko aukera izango dute; eta beste alde batetik, Madrilgo Warner parkean geldialdia egingo dute.

Buru-belarri lanean
Bestalde, Ganbara Gaztekoak buru-belarri dihardute Ejea de los Caballerosko (Zaragoza) lehiaketan eskainiko dituzten kantuak prestatzen. Lehiaketa maiatzaren lean egingo dute.

Oraingoan ere, euskal konpositoreen lanek pisu berezia izango dute programan: alde batetik, David Azurzaren *Akerrak Ken* abestia aurkeztuko dute eszenografia bereziarekin; eta, beste alde batetik, Josu Elberdinen lan

berria estreinatuko dute. Hain justu ere, *Dos canciones mañicas* lana. Gainera, Whitacrerren *The Seal Lullaby* eta Hatfielden *Amarillas* kantatuko dituzte. Lehiaketan 12 taldek parte hartuko dute. Ganbarakoek maiatzaren lean egingo dute saioa, 16:30ean.

Ganbarako lagunek badakite zer den Zaragozako lehiaketan parte hartzea: nagusien abesbatzak lehen saria eta entzuleen saria irabazi zituen 2003an.

Askotariko elizkizunak egingo dituzte eliza eta monasterioetan, bihar hasita

M.B. | OÑATI
Aste Santuan askotariko elizkizunak egingo dituzte, bihartik domekara arte.

Eliza katolikoak urteko garai garrantzitsuena ospatzen du –Gabonekin batera–, eta herriko eliza, auzoetako ermita eta monasterioetan elizkizunak egingo dituzte.

Bihar eta etzi, gehien

Datozen egunetako elizkizun gehienak bihar eta etzi artean egingo dituzte. Bihar ordu santua egingo dute herriko eliza handienetan eta etzi, egubakoitz, gurutze-bidea. Domekako ospakizunak hiru lekutan egingo dira: Santa Anan, beneditarretan eta parrokian.

ASTE SANTUKO ELIZKIZUNAK

| | APIRILAK 21 | APIRILAK 21 | APIRILAK 22 | APIRILAK 22 | APIRILAK 23 | APIRILAK 24 |
|--------------------|-----------------------|--------------|---------------|-------------------|---------------|--------------|
| | EGUEN SANTUA | ORDU SANTUA | GURUTZE-BIDEA | EGUBAKOITZ SANTUA | ZAPATU SANTUA | PAZKO DOMEKA |
| Santa Ana | 19:00 | 21:30 Gurtza | | 19:00 | 21:30 | 10:00 |
| Beneditarren eliza | 18:00 | 22:00 | - | 18:00 | 21:00 | 12:30 |
| Agustindarrak | 19:30 | - | 20:00 | 18:00 | 20:30 | - |
| Parrokia | 18:00 | 22:00 Gurtza | 09:00 | 17:30 | 21:30 | - |
| Bidaurreta | 18:30 | 22:00 Gurtza | 19:30 | 17:00 | 21:30 | 10:00 |
| S. Martin | 16:00 | - | - | 16:00 | - | - |
| Uribarri | - | - | 09:00 | - | - | - |
| Olabarrieta | - | - | 11:00 | - | - | - |
| Zubillaga | - | - | 11:00 | - | - | - |
| Koizkar | 18:00 Jaunaren afaria | - | - | - | - | - |

Zero Zabor taldekoek sinadurak batu dituzte

Oñati Zero Zabor plataformako kideak sinadurak batzen egon dira azken egunotan –zapatuan, domekan, astelehenean eta atzo–, eta gaur ere batuko dituzte: Herriko Plazan jarriko dute mahaia, 18:30ean. Informazioa ere banatuko dute. Atez ateko bilketa sistemaren aldeko sinadurak batu gura dituzte.



ZERO ZABOR TALDEA

Autobus gehiago Oñati eta Arantzazu lotzeko eguenetik aurrera

Eguenetik, hilaren 21etik aurrera, Oñati-Arantzazu autobus zerbitzuak eskaintza zabalagoa izango du: lehen autobusa 07:30ean irtengo da Oñatitik eta azkena 19:30ean; aldiz, Arantzazuko lehena 08:00etan irtengo da eta azkena 20:00etan. Txartelak 0,60 euro balio du.

Autobusak postetzeko, San Lorentzoko eta Euskadi etorbideko geltokietan geratuko dira. Gainera, Oñatitik 10:30ean eta 15:30ean irteten den autobusak Arrikruzen egingo du geldialdia. Era berean, Arantzazutik 12:15eko eta 17:15eko autobusak koba sarreran geratuko dira.

Otoitzaldi eta elizkizun asko Aste Santua ospatzeko, bihar hasita

M.A. | ARETXABALETA

Leintz Barrutiko kristauak hainbat elizkizun eta otoitzaldi egingo dituzte datozen lau egunetan Aste Santua ospatzeko. Horietako batzuk Andre Mariaren Zeruratze parrokiaren elizkizunak eta beste batzuk, agustindarren monasterioan.

Izurietara gurutze-bidea

Joan den domekan hasi zituzten ekitaldiok, Erramu-domeka ospatuta, eta bihar, Eguen Santua, jarraituko dute bakarkako aitortzak eginda parrokiaren (11:00-12:00). Elizkizunak, baina, arratsaldean hasiko dituzte; hain zuzen ere, Jaunaren azken afariko eukaristia ospatuko dute

monasterioan (18:00) eta parrokiaren (19:00).

Egubakoitz Santuan gurutze-bidea egingo dute Izurieta auzora (11:00). Eta arratsaldean Jaunaren nekaldiko ospakizuna izango dute monasterioan (16:00) eta parrokiaren (17:00).

Zapatu Santuan Pazko-gau-beila ospatuko dute kristauak bai parrokiaren, bai monasterioan (21:00etan, bi lekuetan) eta parrokiaren, gainera, bataioak izango dira. Pazko-domekako meza nagusia, ostera, parrokiaren izango da (11:30).

Elizkizun horiez gain, hainbat otoitzaldi izango dira egunotan monasterioan, tartean gorespenak (09:00).



Aozaratza auzoan dagoen Irurikoa baserria. | M.A.

Inor ez da agertu Irurikoa hartzeko

Udalaren asmoa zen turismora bideratzea baserria

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aozaratza auzoan dagoen Irurikoa baserria errentan emateko lehiaketa deia egin zuen Udalak orain hilabete batzuk, baina epea bukatu da apirilean eta ez da inor aurkeztu. Bigarren lehiaketa deia zen eta inor agertu ez denez oraingoan ere, kontua artxibatzea erabaki dute.

600.000 eurotik gorako lanak

Udalaren asmoa izan da turismora bideratzea baserria -40 urterako errentan emanda-; hau da, ostalaritza zerbitzuren bat jartzea Urkulu biziberritzeko planaren barruan, betiere naturarekin edo ekologiarekin lotutako jarduerak eskaintzeko. Iaz uztailean egin zuen lehenengo lehiaketa deia,

baina inor ez zen agertu eta 2011ko urtarrilean berriro saiatu zen hainbat baldintza aldatuta oinarrietan. Irurikoan interesa duenen bat edo beste agertu da bai lehenengo, bai bigarren deialdia egindakoan, baina baserriak behar dituen berritze lanak 600.000 eurotik gorakoak izango direla jakindakoan ez dute aurrera egin horiek.

Udal jabetzako baserri horrek 222 metro koadro ditu hiru solairutan banatuta, eta inguruan 5.000 metro koadroko lursailak. Hainbat urtean, baina, bertan behera utzita egon da, eta, ondorioz, goitik behera eraberritu beharrean dago etxea ostalaritzaren inguruko jardueraren bat jartzeko ondoren.

Langabeendako ikastaro bi maiatzean: margolanen eta hirugarren adinekoen zaintzen gainekoak

Langabezian dauden herritarrendako ikastaro bi antolatu ditu Udaleko Enplegu Sailak. Hirugarren adinekoen zaintzen gainekoa Bizikasirekin batera antolatu du eta maiatzaren 30etik ekainaren 29ra egingo dute Aretxabaleta institutuan (15:00-18:00). Teoria eta praktika bateratuko dituzte astelehenetik eguenera bitartean.

Bestalde, margotzen -hormak, gainazal ezberdinak...- ikasteko eskolak emango dituzte maiatzaren 16tik uztailearen 15era bitartean institutuan. 12 lagunendako daukate lekua.

Izena emateko epea maiatzaren 2an zabalduko dute bi ikastarotarako eta udaletxean dagoen Enplegu Sailera jo behar dute interesatuek -larrea@aretxabaleta.net.

Basotxoko kideak Galiziarra doaz Pazko astean eta ekainean Parisera joateko izenematea zabalik dute

Apirilaren 25etik maiatzaren 1era bitartean Galizia aldera doaz Basotxo erretiratuen elkarteko kideak. Arousa, Santiago, Padron, Sanxenxo, Baiona eta beste hainbat paraje bisitatuko dituzte, eta paisaia eta gastronomiarekin gozatzeko aukera izango dute.

Eta dagoeneko hurrengo bidaiaren antolatzen dabilten erretiratuenak: Parisera joan gura dute ekainaren 25etik 30era. Maiatzaren 6a arte salduko dituzte txartelak Basotxon (11:00-12:00). Prezioa: 650 euro bazkideek eta 675 euro gainerakoek.



FELIS BELTRAN DE HEREDIA

Basotxok berakatz-zopa onena

Loramendi elkarteak antolatutako elkarte gastronomikoen arteko olinpiadako probetako bat izan zen Larrinon jokaturako berakatz-zopa txapelketa, eta Basotxo elkarteko erretiratuek egindakoa hautatu zuten sei zoparen artean onena epaimahaiko kideek. Bigarren postuan geratu zen Eguzki Alde elkarte eta hirugarren Muru Alde. Hurrengo proba bolo txapelketa izango da eta maiatzaren 14an jokatu dute.

Ana Bolinaga da Bildu koalizioaren alkategaia

M.A. | ARETXABALETA

Jaiotzez arrasatearra baina aspaldiko urteotan Aretxabaletan bizi den Ana Bolinaga da Bildu koalizioaren alkategaia. 44 urte ditu, bi seme-alabaren ama da eta hezkuntzan egiten du lan. Hain zuzen ere, Heziketa Berezian dago lizentziatua eta irakaslea da pedagogia terapeutikoan. Egun, Eskorriatzako Luis Ezeiza herri eskolako aholkularia da, eta eskola komunitate horretako orientatzaile arduraduna.

Orain arte ez du politikagintzan jardun, baina Bilduko kideek jakinarazi dute eskarmentu handia duela herrigintzan, emakume mugimenduetan, gazteria kontuetan... Erronka handia da harentzat maiatzaren 22ko udal hauteskundeetan Bildu koalizioaren zerrendaburu izatea.



Ana Bolinaga. | M.A.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



**ANDRA
MARI**

Aholkularitza

**Fiskala
Kontablea**

Juridiko/laborala

2010eko ondare eta errenta
aitorpenenerako epea zabalik

Andra Mari auzunea 3 ARETXABALETA Tel.: 943 79 29 26

Herriko umeen dantza emanaldia eta lip duba, Aitzorrotz kultura elkartearen egunean

Maiatzaren 7an egingo duten jaialdiarekin herriko kultura "bizirik" dagoela azalarazi gura dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aurten ere Aitzorrotz eguna egingo du izen bereko kultura elkarteak. Maiatzaren 7an izango da jaialdia, eta aurrekoetan bezala, ekitaldiz jositako egitaraua gertatu dute. Berrikuntza bi ditu horrek: goizean, herriko umeen dantza taldeak eskainiko duen emanaldia, eta arratsaldean grabatzeko asmoa duten lip duba, hain justu ere.

Txistularien kalejirarekin hasiko dira ekimenak, 11:00etan; eta ordu bete beranduago, taloak eta sagardoa banatuko dituzte plazan; tartean euskal labea duen sagardoa dastatu ahaliko dute eskoriatzarrek. Iaz 150 sagardo botila bota ziren goizean zehar, eta taloei dagokienez 200 talo. Aurten kopuru hori altuagoa izango dela uste dute antolatzaileek, 12:30ean hasiko den umeen dantza saioa dela-eta.



Aurten ere momentuan egindako taloak dastatu ahal izango dira plazan. | GOIENA

Miren Amuriza eta Jone Uria

Dantzaldiaren ostean, *Balkoitik balkoira* izeneko bertso saioa eskainiko dute Jone Uria eta Miren Amuriza bertsolariak. Ekitaldi horrek joan den urtean izandako harrera ikusita, aurten

bigarrenegiz egitea erabaki dute. Emanaldiaren ostean, tabernaz taberna jarraituko dute bertsoak botatzen. Jarraian, herri bazkaria egingo dute; baba-jana. Kultura elkartetik jakinarazi dute txartelak dagoeneko salgai dau-

delako Goxo-txikin, Aldatz eta Inkeru tabernetan, 10 eta 15 euroren truke.

Ederto bazkaldu ostean, zuzeneko musika emanaldia izango da, Arramazkaren eskutik; eta 20:00etan, lip duba grabatzen

hastea aurreikusita dute. Horren bidez, Eskoriatzako kultura bizirik dagoela agerian utziko dute, eta horretarako Eingeinke gazte taldearen laguntza izango dute. Eskoriatzar guztiei parte hartzeko gonbita egin die elkarteak.

Beñat Herce da alkatetzarako Bilduren zerrendaburua

H1! ez da aurkeztuko eta EAJ-tik Aitor Urrutia doa

M.B. | ESKORIATZA

Maiatzaren 22ko udal hauteskundeetarako aurkeztuko diren hautagaiak ezagutzen gabiltza apurka-apurka. Atzo, martitzena, Bilduren zerrendaburuen izena ezagutu genuen: Beñat Herce Lezeta. Hil honetan 30 urte beteko dituen eskoriatzarra Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua da, eta Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateko irakaslea da. Horretaz gainera, Kontabilitate eta Finantza arloan ikerlaria ere bada, eta gaur egun doktoretza-

tesia garatzen dabil, Kooperatibe elkarten finantza egituran.

H1! ez da aurkeztuko

Bestelako taldeen harira, egunotan jakin du H1! ez duela zerrenda aurkeztuko; horren harira, zerrenda osoa eskoriatzarrekin osatzeko arazoak izan dituztela azaldu digute. EAJ alderdiari dagokionez, Aitor Urrutia joango da ostera ere zerrendaburu.

Bestalde, bi agintaldien ostean, aurtengo hauteskundeetara ez aurkeztea erabaki du Iñaki Pierreguesek, eta Urretxuko Jose



Beñat Herce. | GOIENA

Luis Cantero jarri du PSE alderdiak haren orde. EB-Berdeak taldeari dagokionez, Juan Luis Merinok errepikatuko du alkatetzarako hautagai moduan. Horretaz gainera, Deba-Urola barrutirako zerrendaburu ere bada Merino.

Aste Santuko eta Pazko-asteako udal zerbitzuen ordutegia

Ibarraundi eta kiroldegia izan ezik, gainerako udal zerbitzuak itxita egongo dira hilaren 21etik 25era bitartean. Ibarraundi asteburuan baino ez da itxita egongo; eta kiroldegia goizean (09:30-13:00) egongo da zabalik hilaren 21etik 24ra; Pazko-Astelehenean itxita egongo da. Pazko-astean, udaletxera 10:00etatik 13:30era joan ahal izango dira herritarrak; eta egunean, 15:00etatik 17:00etara ere. Kultura etxea, 08:00etatik 15:00era egongo da zabalik; liburutegia 10:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara; eta kiroldegia, 08:00etatik 21:00etara.

NIRE USTEZ

MARIJO PAGALDAI



Gizakien harremanak

Zerk egiten gaitu giza-kiak izatea? Jarrera, hitza, irria, kreatibitatea. Barnean dugu minerala, begetala, animalia eta espiritua. Zelan erlazionatzen gara ezaugarri horiek guztiekin? Dotoretasuna, indarra, adimena ematen dizkigun zerbaiten bihurtu ditzakegu. Edo agian, harrotasun, muga edo hondatzeko erabiltzen ditugu?

Barnean bateratuta ditudan alde eta aspektu asko naiz ni.

Jarrera fisikoak bizkarrezurra modu egokian izatea eskatzen du. Eta jarrera psikologikoak? Gertaerak baino ez dute eragin gehiago gertaera horien aurrean nik hartzen dudana jarrera? Ez al daukat gaitasuna, jarrera kontuan izanda, gertaera horiek alde batera edo bestera bideratzeko?

Izaki sortzaileak garelako uste dut. Imaginazioa, pentsamenduak, asmoa, hitza eta jarrerak dira gure baliabideak eta gure existentzia fisikoa eta psikologikoa moldatzen joaten direnak.

Gure inguruan dauden toxikoak osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen moduan, tresna berdinekin toxiko psikologikoak sortzen ditugu. Banatzeko eta konpetitzeko baino, lankidetzarako eta batzeko erabiltzen baditugu?

Zaindu ditzagun gure hitzak. Zaindu ditzagun gure jarrerak. Zaindu ditzagun gure ekintzak.

Dotore bihurtuz, eta, bide batez, ingurua beraiekin kutsatzen ahalegin gaitezen.

"Zaindu ditzagun gure hitzak, jarrerak eta gure ekintzak"

LENIZ
E S K O R I A T Z A

SUZUKI

KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Iñigo Ramirez de Okariz | Antzuolako EAJren Uri Buru Batzarreko kide dimititu berria

"GBBren azken bileran adierazi genuen dimitituko genuela"

- ▶ Hauteskundeetara ez aurkezteko erabakia hartuta zuen Antzuolako EAJk
- ▶ GBBk kanpokoen zerrenda aurkezteagatik ados ez, eta dimititu egin dute

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

EAJk hauteskundeetarako zerrenda osatzeko arazoak izan ditu, eta ez aurkezteko erabakia hartu zuen. Dena dela, Gipuzko Buru Batzarrek Antzuolatik kanpokoez osatutako zerrenda aurkeztu du. Horrekin ados ez, eta Uri Buru Batzarreko hiru batzarkidek (bost dira) dimisioa aurkeztu dute: Basili Ormazabal, Mikel Larrea eta Iñigo Ramirez de Okarizek. GOIENA saiatu da GBBrekin harremanetan jartzen, baina ez du lortu haien iritzirik jasotzea. **Zergatik dimititu duzue?**

Hiru batzarkideok ez gaude ados GBBk herriko zerrenda osatzeko erabili dituen irizpideekin. Hori dela eta, eta GBBrekin azken bileran esan genuen bezala, gure dimisioa adierazi dugu. Ondorengo egunetan jakinaraziko diegu herritarrei erabaki horren zergatia. Izan ere, hori guztia baino zabalagoa da.

Zergatik iritsi zarete ez aurkezteko erabaki hori hartzera?

Erabakia oso zaila izan da, kon-tuan izanda beti egon dela zerrenda bat herrian. Arazoa ez da oraingoa, lehendik dator. Duela lau urte ere arazoak izan genituen zerrenda osatzeko eta azkar eta presaka egin genuen. Lau urtean saiatu gara sendotzen taldea, baina ezinezkoa izan da.

Aralarrekin jardun zarete bileretan herri plataformaren bat sortzeko -edo. Ez da irten azkenean?

Duela hilabete batzuk talde independenteen artean osatu genuen talde bat helburu batekin: herriko plangintza bat diseinatzen eta aztertzen hastea. Ez du aurrera egin, ikusi baitugu jendearen tendentzia dela era autonomoan lan egitea, ez talde politiko baten



Iñigo Ramirez de Okariz. | USOA AGIRRE

azpian. Orduan beste estrategia batzuk jarraitu genituen eta horietako bat izan zen Aralarrekin posible zen plataforma bat osatzea. Horrek ez du aurrera egin.

Zergatik uste duzue jendeak ez duela interesik?

Faktore asko daude. Azkenengo urtean EAJn parte hartzea ez da erosoia izan. Ezker abertzaleak oso egoera txarra izan du eta Antzuolako giroa ez zen batere ona. Beste faktore batzuk badaude eta bat da gizartea bera aldaturik dagoela. Baina ordua da formula bat edo beste topatzeko eta benetako herrigintzari edo momentu honetan herrigintzak bizi duen krisialdiari buelta emateko. Jendeak ez du nahi elkartetan-eta parte hartzerik. Lasaiago bizi da horrelako gauzetan parte hartu barik. Horrek arriskua ere badauka. Izan ere, azken urteotan herrian lortu direnak (Torresoroa, eskolako patioko estalpea...) ez dira etxean egonda lortzen. Irteetan gara etxetik eta ausartzen gara horrelako gauzetan sartzen, edo bestela gureak egin du.

Maria Eugenia Arrizabalaga, EAJko alkategai

Gipuzko Buru Batzarrek Antzuolakoak ez diren Gipuzkoako beste herri batzuetako alderdikidek osatutako zerrenda aurkeztea erabaki du azken momentuan, herriko alderdikideen erabakiaren gaineratik. Maria Eugenia Arrizabalaga izango da alkategaia.

Arrizabalaga (Zumaia, 1967) zuzenbidean lizentziatua da. EAJko legebiltzarkidea da Gasteizen, Gipuzko Buru Batzarreko kide eta Zumaiko Udaleko zinegotzi. GOIENAKo ohiko kolaboratzailea ere bada, politikarien *Tertulia* saioan.



Arrizabalaga zumaiarra. | GOIENA

Inmaculada Beristain da Bilduko koalizioaren zerrendaburua

Aralarrek ez du zerrendarik aurkeztuko oraingoan

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Astlehenean aurkeztu zituen Bilduk 300 zerrenda udaletarako eta Batzar Nagusietarako. Antzuolako Udalerako aurkeztutako zerrendan lehen izena da Inmaculada Beristainena. Azkoitiarra da jaiotzez, baina urteak daramatza Antzuolan bizi izaten. Hauek osatzen dute Bilduko zerrenda: Inmaculada Beristain Aramendi, Ion Iñaki Yarza Lorenzo, Nagore Dos Santos Romarate-Zabala, Mikel Jauregi Telleria, Maddi Elorza Jauregi, Santiago Etxezarreta Agirre, Aritzi Saidi Olaortua, Miren Iturbe Berasategi, Cruz

Luciano Madariaga Lete, Lorea Colominas Sanchez, Iker Manso Igarza, Maria Jesus Zubimendi Albizuri, Isidro Zabaleta Narbaitza, Auritz Guridi Loidi eta Jose Aitor Belastegi Aranzabalek.

Aralarrik ez

Aralarrek ez du Udalerako zerrendarik aurkeztuko. Duela lau urteko udal hauteskundeetan, Zutikekin eta Ezker Batuarekin koalizioa osatuz aurkeztu ziren.

Aralar barik, Bilduk, EAJk PSE-EEk eta PPK aurkeztu dituzte zerrendak Antzuolan.

Maiatzaren 5era arte aurkez daitezke argazkiak

U.A. | ANTZUOLA

Maiatzaren 5ean bukatuko da Antzuola eta antzuolarrak IV. argazki lehiaketan lanak aurkezteko epea. Antzuolan jaiotako edo bizi den edozeinek parte har dezake. Argazkietako protagonista Antzuola izango da: antzuolarrak, Antzuolako ohiturak, jaiak, Antzuolako jendea, tokiak... Hiru maila bereiziko dira: 6-12 urte, 13-18 urte eta 19tik gora. Eta maila bakoitzeko bi sari egongo dira.

Informazio gehiagorako jo www.antzuola.net helbidera jo behar da.

Jaurlaritzara dokumentuak bidaltzeko, Udalaren bidez

U.A. | ANTZUOLA

Joan den astean egindako ohiko osoko bilkuran gehien-go osoz onartu zuen udalbatzak Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatzea, udala Jaurlaritzaren erregistro deszentralizatua izateko. Hala, herritarrek aukera izango dute EAJko administrazioaren edozein organo edo erakundera zuzendutako dokumentuak udaletxean bertan aurkezteko. Udalak bere erregistroetan jasoko ditu Eusko Jaurlaritzari zuzendutako mota guztietako idazkiak eta, ondoren, Jaurlaritzara bidaliko ditu horien izapideak egiteko.

Behin udalbatzarrek hitzarmena onartuta, akordioaren berri GAOn eta EHAAn argitaratutakoan egingo da legezko.

OHARRAK

HAURESKOLA

Antzuolako haurreskolan matrikulatzeko epea zabalik egongo da maiatzaren 2tik 13ra bitartean. 2010ean jaiotako umeendako bost plaza daude eta 2011n jaiotakoendako, berriz, zortzi. Informazio gehiago nahi izanez gero, haurreskolara bertara jo dezakezue, 13:30etik 15:00etara bitartean.

ASTE SANTUKO MEZAK

Eguenetik domekara bitartean, Aste Santuari dagozkion elizkizun bereziak egingo dira. Eguen Santuan Azken Afariko eukaristia ospatuko dute parrokiari, 17:00etan. Uzarragako elizan ere egingo da eukaristia egunean, 16:00etan. Egubakoitz Santuan gurutze-bidea egingo da 10:00etan Antiguana eta Jaunaren Nekaldia 17:00etan, Errukizko Amaren parrokiari. Zapatu Santuan Pazko Gaubeila egingo da parrokiari, 20:00etan. Pazko Domekan, berriz, meza izango da Antiguana, 11:00etan.

NIRE USTEZ

KONTXI LASKURAIN



Egun berezia

Joan den larunbatean antzuolar askorentzat ez zen izan *Un día cualquiera*, Torresoroako antzezlanean esaten zuen bezala; ez, behintzat, Marijo Moreno antzuolarrarentzat. Herrian lehen aurkezpenean zuen obra horrekin eta denok harrituta eta txaloka egon ginen bere hitzen jarioarekin eta azaldu zuen espresibitatearekin; ziur naiz artista bat gehiago dugula herrian!

Egun berezia baita Kristau Elkartearentzako: eliza berriaren inaugurazioa izan zen eta. Hemen ere denok harrituta hainbeste "santu eta santa" jarioarekin. Eta txaloka lanak aurre-

ra ateratzeko lanean ibili direnei, oso ausartak izan baitira; baita koruko kantoreei ere, hura gozamina! Benetan, Antzuolan ondo kantsakratutako artistak dauzkagu!

Ez zen izan edozein egun futbola maite dutenentzako ere: telebistan, Real Madril-Bartzelona. Jarria egon zen hor ere, baina gehiena hitz zatarrekin. Eta txalokak biezat, puntuak banatuta geratu baitziren. Badakigu kirol mundu horretan *artista* asko dagoela!

Herritik irten barik, larunbateko arratsalde-gau borobila pasa nuen eta nire nortasunaren hiru alderdi garrantzitsuak aseta geratu ziren: ludikoa, izpiritu-tuala eta kulturala.

Parrokian, gotzainak esan zigun: "Jaunko geure artean dago". Askorentzako artista eta kirolariak jaunkoak dira.

Ohean pentsamendu honekin hartu nuen lo: "Aukera bat ere baztertu barik eta bihotza zabalik edukiz, bere bila jarraituko dut".

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Herriko armarrria aldatzeko ideia lehiaketa onartuta

Antzuolako etorkizuneko armarrria edo sinboloa lantzeko ideia lehiaketa egitea onartu zuten joan den asteko osoko bilkuran. Edozeinek parte hartu ahal izango du eta saria 800 euro da. Kudeatuz prozesuan lehenetsitako balioak hartu beharko dira kontuan armarrria lantzeko orduan.

Bailara osotik datozen trikiti doinuak

Aramaiora, Debagoieneko Trikitixa Egunean

Maiatzaren 7an izango da; Ibarra, Uribarrin, Untzillan, Barajuenen eta Azkoagan joko dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Trikiti doinuek Aramaio hartuko dute datorren maiatzaren 7an, egun horretan ospatuko da eta Debagoieneko Trikitixa Eguna. Ekimena duela zazpi urte sortu zen, gure ibarrean trikitiari omenaldia egin eta egun bat gutxienez eskaintzeko asmoz. Aramaio-koa, beraz, zazpigarren edizioa izango da; Arrasaten hasi zen eta Debagoieneko herri gehienetan ospatu da dagoeneko.

Aurten ere Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara, Antzuola, Oñati, Soraluze-Debagoienean ez egon arren Trikitixa Egunean egon izan dira eta Aramaio-ko trikitilariak hartuko dute parte. Gainera, aurten Zaldibarko trikitilariak ere gonbidatu dituzte: 400 trikitilari inguru espero dira guztira. Aurten, gainera, Ibarra jotzeaz gain, Uribarri, Untzilla, Barajuen eta Azkoagan ere entzungo dira pandero eta trikiti doinuak.

Laguntzaileei esker ona

Trikitixa Eguna ospatzen den herriko trikiti taldeak antolatzen du. Hala, Aramaio-ko Trikitixa Taldeak antolatu du aurten. Taldea duela 15 bat urte sortu zen, Aramaio-ko guraso batzuen bultzadari esker. Gurutze eta Josune Uribarren ahizpek hartu zuten irakasle lanetan aritzeko ardura. Egun, 20 ikasle daude pandero eskoletan eta beste 21 trikiti



Iaz azaroan Trikitixa Eguna ospatu zen Aramaion. Maiatzaren 7an Debagoien osoko trikitilariak etorriko dira. | GOIENA

eskoletan. Bada, antolatzaileek nabarmendu gura izan dute maiatzaren 7ko Trikitixa Eguna antolatzeko "ezinbestekoa" izan dela, taldearen sorreran bertan gertatu zen moduan, Aramaio-ko

hainbat gurasoren laguntza. Horrez gain, Udalarri eta kolaboratu duten enpresa eta herriko taberna zein jatetxeei eskerrak eman gura dizkie Trikitixa Taldeak.

Hurrengo, Eskoriatzan

Hurrengo Trikitixa Eguna Eskoriatzan egingo da. Hala, aramaioarrek trikitilari eskoriatzarrei lekukoa pasako diete ekitaldi nagusiaren amaieran.

Egitarau zabala, karpa eta guzti

10:45ean hasiko da jaia, talde ezberdinei egingo zaien ongiatorrian. Talde bakoitzak toki zehatza izango du kalejiran aritzeko. Gero, 13:00etan, pilotaleku inguruan jarriko den karpa baten bilduko dira guztiak, eguneko ekitaldi nagusirako. Talde bakoitzak abesti bana joko du eta gero herri bazkaria egingo dute kiroldegian.

Bazkalostean, 17:30 aldera, Gozategi taldearen kontzertua egongo da. Bestalde, hainbat sorpresa ere izango dira: zozketak, omenaldiak, dastatzeak...

DATUA

400

TRIKITILARI ESPERO DIRA

Maiatzaren 7ko jaian 400 trikitilari espero dira. Gure ibarrekoez gain, Zaldibarko trikitilariak ere etorriko dira, talde gonbidatua dira-eta.

Nafarrate, Uribe eta Ajuria: EAJ, Alkartasuna eta Bilduren aukerak

Aramaio ondo ezagutzen dute hiru alkategaiek; Nafarrate eta Uribe alkate izandakoak dira

J.B. | ARAMAIO

Asteon ezagutu ditugu maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeetarako alkategaiek: EAJrena Iñaki Nafarrate, Aramaio Alkartasunarena Jose Ramon Uribe eta Bildu koalizioarena Ramon Ajuria.

EAJren hautagaia aurpegi ezaguna da. 1983tik 1987ra alkateorde izan zen eta 1995tik 2003ra, berriz, alkate. Hau da, bi agintaldi egin zituen alkate moduan. Arabako Toki Administrazioa eta Lurralde Orekarako foru diputatua izan da azken lau urteotan.

Bestalde, Aramaio Alkartasuna izena hartu duen alderdia aurkeztuko da Aramaion. Izen hori hartu dute, eta EAkoak izan diren eta Bildurekin akordiora iritsi ez diren kidez dago osatuta, batez ere. Aramaion bakarrik aurkeztuko dira izen

horrekin. Alderdi berriak beste alkate ohi bat aurkeztu du alkategai moduan: Jose Ramon Uribe. 1991etik 1995era izan zen alkate, aurretik lau urtez zinegotzi moduan egon ostean.

Ajuria, berriz, hasiberria

Aramaio-ko Bilduren zerrendaburua Ramon Ajuria izango da. Arrasaten jaio arren Aramaion 24 urte daramatza, eta, beraz, Aramaio eta aramaioarrek ondo ezagutzen ditu.

Berria da politikagintzan, eta, aitortu digunez, "lehiakide zailak" izango ditu: "Biak alkateak izandakoak dira, eskarmentu handikoak. Hala ere, horrek ez dit beldurrik ematen, gu talde moduan aurkeztzen gara-eta". Izan ere, espresuki nabarmendu gura izan dute alkategaiari baino taldeari berrari emango diotela garrantzia.



Primeran ibili ziren Orixoli esker Zumaiara joan zirenak

Orixol mendizale elkarteak antolatuta, zapatuan, hilak 16, Deba eta Zumaia artean mendi ibilaldia egin zuten 26 aramaioarrek. Eguraldia lagun zutela lau ordu inguruko ibilaldian paraje ederrez gozatu ostean, Hernanira joan ziren sagardotegi baten bapo bazkaltzeko. Urteko bigarren ekintza izan da, eta antolatzaileak pozik daude iazko parte-hartzea ia bikoiztu egin delako. Hurrengo irteera Pirinioetara egingo dute, ekain amaieran: Monte Perdido igotzeko asmoa dute.

ORIXOL MENDIZALE ELKARTEA

ELGETA

Alkatetzarako hautagai nagusiak: Erostarbe, Basauri eta Goenaga

L.Z. | ELGETA

Argituta. Badakigu zenbat eta nortzuk diren 2011ko udal hauteskundeetarako alkategai nagusiak Elgetan: Oxel Erostarbe (Aralar-Independenteak), Patxi Basauri (EAJ) eta Koldo Goenaga (Bildu).

Oxel Erostarberen helburua izango da alkatetzari eustea eta lau urteotan oposizioan egon den Patxi Basaurirena, berriz, agintea berreskuratzeko. Koldo Goenaga berria da alkatetzarako lehian, eta, arrazoi horregatik, hauteskundeetako sorpresa izan daiteke.

Maiatzaren 6an abiatuko da hauteskunde kanpaina eta bi aste izango dituzte hautagaiek gertatutako programak herriarren artean zabaltzeko.

Falta nabarmenak

Udal hauteskundeetarako aurkeztu diren zerrendak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean daude ikusgai. Elgetari dago-kionez, esan beharra dago desa-

gertu egin direla Elgetako zerrendetatik urtetan udalbatzako kide izan diren Joseba Muxika eta Iñaki Ugarteburu.

Hautesle-mahala

Udalak hilaren 23an emango ditu aditzera Elgetako hautesle-mahaian egoteko zozketaz hautatuak izan diren herritarren eta haien ordezkoen izenak.



Goenaga, Bilduren hautagaia. | L.Z.

OHARRAK

OZKARBI EGUNA

Hilaren 30ean egingo duten afarirako izenematea zabalik dago. Prezioa 15 euro da.

MAGIA MOSTRA

Juan Tamarizek maiatzaren 6an eta 7an egingo dituen ikuskizunetarako sarrerak salgai daude antzokian eta www.espaloloia.com atarian. Prezioa 25 euro da; bazkideendako, 20.

PAILAZOAK ESPALIOAN

Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazoak Espalioan izango dira maiatzaren 1ean. Ikuskizuna 18:00etan da.

MUNDUMIRA

Bolondresak behar dira maiztzeke azken aste bukaeran Mundumira jaialdian lan egiteko. Izenematea zabalik dute udaletxean.

2010eko udal likidazioan 37.000 euroko soberakina

Alkateak 2010eko likidazioaren kontu eman zuen azken osokoa. "Aurreikusitako inbertsio ia guztiak eginda, 37.000 euroko gerakinarekin itxi dugu urtea. Diru hori 2011. urterako geratuko da", esan zuen. Dirulaguntzak hasiera batean uste baino handiagoak izan ei dira.

Bi bisita gidatu Espainiako gerraren ibilbide tematikoan

Egunetarako bi bisita gidatu antolatu ditu Debagoieneko Mankomunitateak Intxortako ibilbide tematikora. Eguenean, apirilak 21, egingo dute lehen eta maiatzaren 1ean, domeka, bigarrena. Espaloitik abiatuko dira biak, 10:00etan. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea: 943 79 64 63.

Asentzioko bideari zordun-bide izaera onartzen diote bi aldeek

Erabilera desegokirik egon ezean, konponketak Udalaren kargu izango dira

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako Udala eta Angiozar bailarako batzarra lehen adostasunera iritsi dira Asentzioko bidearen erabilerean inguruan. Hainbat bilera egin ostean eta Elgetako alkate Oxel Erostarbek azaldu duenez, bi aldeek zordun-bide izaera onartzen diete bai Asentzio erditik pasatzen den bideari bai Parteittitik Altzuaran eta Altzerrekatik zehar datorrenari. Horrek esan gura du orain arte moduan bi bideotan bermatuta egongo dela pasoa baserri eta baso-jarduerari dagozkion lan guztiak egiteko. Hala, aparkalekuaren sarreran kendu eta ipintzeko itxitura jarriko dute. Hezegunean, hori bai, debekatu ta egongo da aparkatzea.

Bidearen konponketa lanak

"Bide zoruaren materiala bide honen zati baten Elgetako Udalak aldatu izanak ez du inolako kalte ekonomikorik eragingo jabeengana", irakur daiteke aurre-akordioan, "eta haren konponketa Elgetako Udalaren kargu izango da". Erabiltzaileei eskatzen zaie, hori bai, baso ustiaketa uda sasoiaren edo eguraldi egokia den egunetan egitea eta bidea garbi



Asentzioko bidea atzo, martitzena. | L.Z.

lagatzea. Azkenik, "erabilera desegokiak eragin ditzaketen kalteak erabiltzailearen kargu izango dira".

Gunearen mantenu osoa

Oxel Erostarbe alkatearen esanetan, lehen akordio horrek bigarren bat ekarri behar du; gunearen kudeaketa osoaren ingurukoa, hain zuzen. Elgetako Udalak nahi du Angiozarrek ere bere gain hartzea hezegunea txukun eta garbi mantentzeko lanak. Hala, lehen akordioa sinatu bezain

pronto hasi behar ei dute bigarrena negoziatzen.

Itxiturak Intxortan ere

Bestalde, udal ordezkari Edurne Alberdik aditzera eman duenez, itxiturak ipini dituzte Intxortako igoran. "Asko dira inguru horretan gora eta behera ibiltzen diren ibilgailuak eta kalte handiak sortzen dituzte. Bide guztiak hondatuta daude", esan du. Lur partikularak izanik jabeek horrela eskatuta itxiturak ipini direla adierazi du.

Bizikletagunea oraindik ez dago gertu

"Oraindik gauza asko egin behar dira hemen", adierazi dute lanean diharduten gazteek. "Zortzia amaitzeko dago eta saltoak egiteko abiadura hartzeko aldapak ere bai. Jendea hasita dago etortzen, baina gunea ez dago amaituta". Hala, bizikletagunea berria oraindik ez dagoela zabalik adierazi dute.



L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Aste Santuan zabalik dago museoa eta jaiegunetako ordutegia du

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Aste Santuko egunetan zabalik egongo da gatz museoa eta jaiegunetako ordutegia izango dute bisita gidatuek: 12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Asteleheneko *Goiena* paperean esandakoa zuzendu gura dugu horrekin, jaiegunetan itxita egongo zela jarri genuen eta.

Hitzordua aurrez egiten duten taldeendako moldatu egin dezakete ordutegi hori, eta Pazko asteko astegunetan txanda aurrez hartutakoekin bakarrik egingo dituzte bisita gidatuak. Argibide gehiago gura duenak edo hitzordua egin Gatzagako turismo bulegora jo behar du: labidea1@eus-kalerra.org edo 665 73 95 50.

Jakion enpresara bisitak

Bestalde, Mankomunitateak antolatutako gastronomia jardunaldiak bukatuta egon arren, museoko arduradun Aitziber Gorosabelek jakinarazi du *Iturriko gatz mahaian gozo* erakustaldiekin jarraituko dutela. Horren barruan sartzen dira gatz museoko bisita eta Jakion enpresara irteera. Barazki eta fruta kontserbagintzaren gaineko argibideak emango dituzte, eta produktuak probatzeko aukera dago. Horretarako ere turismo bulegora deitu behar da.

Aste Santuko elizkizunak parrokian: bihar, egubakoitzean eta domekan

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Aste Santua ospatuko dute Gatzagako kristauek egunotan parrokian egingo dituzten elizkizunekin. Bihar, Eguen Santua, Jaunaren azken afora gogoratuko dute eta etzi, Egubakoitz Santua, nekaldia eta heriotza. Elizkizun biak 18:00etan izango dira eta Pazko Domekan, ohi bezala, 12:30ean izango da meza

nagusia. Martin Mendizabal Arantzazuko fraidea etorriko da elizkizun horietara.

Maiatzaren 1etik Dorletan

Bestalde, maiatzaren 1ean hasita Dorletako santutegian esango dituzte domeketako meza guztiak (12:30), parrokian esan beharrean; azaroaren 1a bitartean iraungo du horrek.

APIRILEKO SARIEN IRBAZLEAK

Tamariz ikuskizunerako sarrerak



**Andoni
Zubia Madinabeitia**
Eskoriatza

Korrika-ko arropa



Izen-abizenak

Naiara Urzelai Sologaitoa
Juan Ramon Irizar Zubizarreta
Espe Lizarralde Gallastegi
Miguel Angel Guridi Urzelai
Izar Ijurra Goñi
Mila Kerejeta Urtaza
Ramon Ugaldel Arrieta
J. Angel Oianguren Arana
Pilar Calvo Sodupe
Amaia Gorosabel Pagaldai
Iñigo Garitano Larrañaga

Herria

Oñati
Bergara
Arrasate
Oñati
Arraste
Oñati
Elgeta
Aretxabaleta
Arrasate
Bergara
Bergara

Bazkide egiteko

Tel.: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
www.goienakluba.com
Urteko kuota: 48€



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

FUTBOLA



2009ko gazte mailako Realak Agorrosinen jokatu zuen; tartean, Antoine Griezmannek. | GOIENA

Osasuna, Gipuzkoako konbinatua, Valentzia eta Espanyol, Bergarako Agorrosinen

Realaren gazte mailako txapelketako partidua hilaren 23an jokatuko dituzte

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Realak antolatzen duen ohorezko gazte mailako futbol txapelketa gurerara dator berriro ere. Agorrosinen bi partidua jokatuko dituzte zapatuan, hilaren 23an. Gainerako partidua jokatuko dituzte egubakoitzetik domekara arte. Hirugarren eta laugarren lekuak zehazteko partidua eta finala, hilaren 25ean jokatuko dituzte Zubietan.

Aurten zortzi talde

Iaz, ohorezko gazte mailako liga txapelketak ez zuen atsedenek eduki Aste Santuan, eta Realak txapelketaren egitura goitik behera aldatu zuen –hiruko txapelketa egin zuten-. Aurten, baina, ez dute liga partidurik eta talde askoz gehiagok parte hartuko dute. Guztira, zortzi talde lehiatuko dira. Hain justu ere, Real, Gipuzkoako konbinatua, Osasuna, Espanyol, Valentzia, Vila-real, Real

PARTIDUEN ORDUTEGIA

APIRILAREN 23AN

11:30 Real Madril-Senegal / Hondarribian
16:00 Real-Vila-real / Oñate
16:00 Gipuzkoa-Osasuna / Beasain
17:30 Espanyol-Valentzia / Beasain

APIRILAREN 24AN

16:00 Real Madril-Vila-real / Hendaia
16:00 Real-Senegal / Azkoitia
16:00 Gipuzkoa-Espanyol / Bergara
17:30 Osasuna-Valentzia / Bergara

APIRILAREN 25EAN

16:00 Espanyol-Osasuna / Zarautzen
17:30 Vila-real-Senegal / Zarautzen
16:00 Gipuzkoa-Valentzia / Azpeitia
17:30 Real-Real Madril / Azpeitia

APIRILAREN 26AN

11:00 3. eta 4. postua / Zubietan
17:30 Finala / Zubietan

Madril eta Senegalgo selekzioa lehiatuko dira egubakoitzetik astelehenera arte.

Bergaran, zazpi euro

Bergarako Agorrosinen jokatuko dute Osasunak eta Gipuzkoako konbinatua, Valentziak eta Espanyolek. Lehen partidua jokatuko dute zapatuan, hilaren 23an, 16:00etan, eta bigarrena 17:30ean. 30 minutuko bi zati jokatuko dituzte lehia bakoitzean. Etorkizunean lehen mailan jokatuko duten jokariak ikusi gura dituztenek zazpi euro ordaindu beharko dituzte. Lehiatzen jasotzen duten diru guztia Bergararendako izango da.

Realaren 28. gazte mailako bi talde onenek finala jokatuko dute Zubietan astelehenean. Aurretik hirugarren eta laugarren lekuak erabakitzeke lehia jokatuko dute. Realeko bazkideak doan sartu ahaliko dira finala ikustera.

MENDI LASTERKETAK

Aloñako igoerako izenematea zabalik maiatzaren 1era arte

M.B. | OÑATI

Maiatzaren 8an egingo dute Aloñako igoera. Parte-hartzaileendako izenematea zabalik dago maiatzaren 1era arte. Horretarako diru-sarrera egin behar dute Euskadiko Kutxan edo Rural Kutxan: mendi federatu txartela dutenek 15 euro eta federatu ez direnek, 20 euro. Izena eman daiteke turismo bulegoan edo www.aloina.net atarian.

Bestalde, parapente lehiaketan parte hartu gura dutenek www.amillenahegan.com webgunean eman behar dute izena maiatzaren 2a baino lehen. Izenematea bost euro da.

TENIS

Tenis txapelketan izena emateko azken eguna

M.B. | OÑATI

Maiatzaren 7an hasiko dute Oñatin udaberriko tenis txapelketa, eta dagoeneko zabalik dute izenematea: gaur da azken eguna. Interesatuak bi bide dituzte: zubikoa@oinati.net helbidean eta 943 71 63 75 telefonon. Debagoieneko kirol zerbitzuotako bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 18 euro. Txapelketak bi fase izango ditu: lehena ligaxka moduan jokatuko dute eta bigarrena, kanporaketa moduan. Partidua zapatuan jokatuko dituzte, hiru setera.

BESTE KIROL BATZUK

Gure kirol talde nagusiek oporrak dituzte

M.B. | ARRASATE

Futboleko, eskubaloian, saskibaloian eta areto futboleko diharduten talde nagusiek oporrak dituzte datozen egunetan. Aste Santua dela eta ez dute partidurik jokatuko maiatzeko lehen aste bukaera arte. Hori horrela, Gipuzkoako Futbol Federazioak antolatzen dituen txapelketek jai dute maiatzaren 7-8ko aste bukaera arte. Saskibaloiko taldeek ere maiatzaren lehen aste bukaeran ekingo diote lehiari, eskubaloiko eta areto futboleko moduan. Guztiek eskertuko dituzte oporrak.

ZIKLOTURISMOA

Bergarako 5+3 aldaketekin dator

- ▶ Maiatzaren 1ean egingo dute ibarreko zikloturismo martxa; izenematea zabalik dago
- ▶ Araudi frantsesean oinarrituko da proba, lehiakortasuna txikitzeko helburuarekin



XABIER URTZELAI | BERGARA

Aldaketa batzuekin baina oinarrian iazko proposamen berarekin dator aurreko ere Bergarako 5+3 zikloturista martxa, kilometro kopuruan oso luzea ez baina mendateak bata bestearekin lotzen dituen ibilbide ederra.

Aldaketa horiek beharrak eraginda egin behar izan dituzte Lokatzako antolatzaileek, ibilbideari dagokionez Gipuzkoako barnealdean egin daitekeen proposamen ederretako bat da eta martxa zikloturista hori: "Aldaketa da Lierniako igoera kendu egin behar izan dugula, baina ibilbidean bost mendate nahi genituen, eta Lierniaren ordeztan ziklistek Barbarisko mendatea igoko dute", adierazi du antolatzaile lanetan dabilen Unai Asurmendik.

Eta ibilbide aldaketa txiki hori egin behar izan dute egun horretan Euskalduna trofeoeko Santikutz Klasikoarekin (Espainiako koparako baliagarria) bat ez egiteko: "Eurekin errepidean bat egitea buruhaustea izango litzateke; izan ere, behin baino gehiagotan gelditu egin beharko ginateke", adierazi du Unai Asurmendik.

Barbaris hirugarren mailako mendatea da, Zeraindik Segurara bidean dagoen lehen biribilgunean eskumatara hartu ostean hasten dena, eta askok Euskal Herriko Itzuliko lehenengo etapen ezagutu zutena: "Lau kilometro inguruko igoera izango da, baina ez nuke esango ibilbidearen gogortasunean eraginik duenik. Orotara iaz baino hiru kilometro gehiago egingo ditugu (103), baina ez gehiago". Kilometro kopuruarekin, baina, ez dadi inor despistatu. Joan den astean



Deba-Deba martxa egin zutenek 160 kilometro pilatu zituzten hanketan [600 lagun batu ziren irteera puntuan]; distantzian Bergarakoa askoz motzagoa da, baina, gaitu beharreko mendateei dagokionez, ez dago kolorerik; izan ere, Udana zen Deba-ko martxa gaitu beharreko mendate gogorra.

Araudi frantsesarekin

Maiatzaren 1eko hitzorduari dagokionez, kontuan hartu behar da aurreko Gipuzkoako martxak araudi frantsesean oinarritu dituztela, ziklisten arteko lehiakortasuna txikitzeko asmoz –eta jendeak zirkulazio araudiak errespetatzeko helburuarekin–. Hala, ziklistak ez dira denak batera irtengo, 08:30ean hasita orubete egongo da taldeka irteeraren joateko. Lasterketa buruan ez da probako autorik joango, inork ez ditu bidegurutzak ziklistendako zainduko –ez da lasterketa bat– eta proban zehar ez da denborak hartzeko txipik egongo. Hala, hori da Bergarako martxako beste nobedadeetako bat, iaz Elosuko igoera kronometratuak zikloturisten lehiarako grina guztiak asetzuten-eta.

Izenematea zabalik dago

Bergarako 5+3 zikloturismo martxarako izenematea zabalik dago, Bergarako bizikleta dendetan eta www.biciprecisionigartua.com webgunean. Eta adi, egunean bertan izena ematea baino askoz ere merkeagoa delako aurrez ematea (federatuek 15 euro; ez federatuek 20 euro).

Horrenbestez, Pazko astean kanpora joango ez zaretenok hortxe duzue hitzordua.

TXIRRINDULARITZA

Alex Aranburu hirugarrena Erandioko MTB lasterketan

Jon Ander Kortabarria taldekidea laugarren izan zen



Aranburu, eskuinetik lehena, podiumean. | DORLETAO AMA

X.U. | ARRASATE

Erandioko egindako mendi bizikleta proban Mugarr-Jay taldeko ziklistak aurrealdean ibili ziren: Alex Aranburu podiumeko hirugarren postura igo zen eta taldekide Jon Ander Kortabarria laugarren sailkatu zen.

Errepidean, berriz, Gipuzkoako Klasikoak Euskal Herriko eta Estatuko ziklista onenak batu zituen Zumaian. Eta Iker Eskibel (Mugarr-Jay) eskoriatarra izan zen ibarreko ordezkari onena, selekzioetan zeuden ordezkarien artean sailkatu zelako, euskaldunen artean laugarren onena izanda. Bergarakoen artean, berriz, Lokatza-Sumofic taldeko onena Hodei Orobengoa izan zen, 54. postuan. Aipatzekoa da, baita ere, kadete mailan JMAko Danel Sagastak Eibarren lortutako garaipena.

AUTOMOBILISMOA

Udanako 6. igoera egingo dute apirilaren 30ean Oñatin

X.U. | ARRASATE

Aste Santu ostera motor hotsez etorriko da, apirilaren 30ean, zapatuan, egingo dute eta Oñatin Udanako 6. auto igoera, Euskadiko mendi txapelketarako lehen proba baliagarria. Eta azken urteotan moduan, txapelketa osoa egiten duten pilotuekin batera, oñatiar bat baino gehiago izango da hitzordua mimos prestatuko duena.

Iaz, esaterako, ibarreko hamaika ordezkari egon ziren lasterketan, eta hamaika lagun horietatik zortzi oñatiarrak izan ziren (Ruben Nogueiras, Juan Zelaia, Aitor Ramirez,


David Ardions, Asier Mugartza, Urtzi Samaniego, Sergio Porcel eta Aitor Arnaiz).

Hala, zapatuan 15:00etan entrenamendu saioak hasiko dira, eta ondoren egingo dituzte bi txandak. Eta seguru Udanako paella-tan zale mordoa batuko direla, egutegiko lehen hitzordua izanda jendea lasterketa gosez dago-eta.

Iaz, Zabaleta

Mendiko saria irabazi zuen Aitor Zabaletak irabazi zuen Udanan, nahiz eta lehenengo txandan gorpila zulatu. Juan Carlos Samperio eta Angela Vilariño igo ziren podiumera.

Debagoieneko GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.

Tel.: 620 17 80 46

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

F: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

KULTURA



2009an hainbat eskolaniak eskaini zuten kontzertua Arantzazun; tartean, Easokoak –apirilaren 30ean ere parte hartuko dute. | JOSETXO ARANTZABAL

Bakearen alde abestuko dute haur kantariak Arantzazuko Santutegian

- ▶ Hilaren 30ean, 12:00etan, bakearen aldeko kontzertua eskainiko dute Arantzazun
- ▶ Donostiako Orfeoi Txikia, Easo Abesbatza, Bilboko Korala eta Amici Musicae arituko dira

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Bakearen aldeko kontzertua eskainiko dute haur kantariak hilaren 30ean Arantzazuko Santutegian. 300 ahots zuri izena jarri diote kontzertuari.

"Iniziatiba hau sortu zen Euskal Herrian bai politikoki eta baita sozialki ere bakearen ideia indartzen ari zen unean", azaldu du Santos Sarasolak, Easo Abesbatzako presidentea. Mundu osoan ezagunak diren abestiekin osatu dute egitaraua, baina espresuki neska-mutilendako egokituak.

Bi zati izango ditu saioak

Kontzertu berezi horretan lau abesbatzak parte hartuko dute: Donostiako Orfeoi Txikia, Easo Abesbatza, Bilboko Korala eta Zaragozako Amici Musicae abesbatzak. Hilaren 30ean, zapatua, 12:00etan, izango da kontzertua. Saioak bi zati izango ditu: lehenengo zatian abesbatza bakoitzak bakarka eskainiko ditu abestiak; bigarren zatian, ostera, lau abesbatzek elkarrekin abestuko dute.

Prestatu dituzten abestiak mundu guztian ezagunak diren lanak dira: "Ez da musika sakroa izango, orain dela bi urteko kontzertuan bezala. Mundu guztian ezagunak diren abestiak eskainiko ditugu", dio Sarasolak.

Bigarren zatia hasiko dute Beethovenen *Himno a la alegría* abestiarekin. Moises Bautistak egin dizkio moldaketak abesti originalari. Ondoren, *Immanuel* –Michael Card–, *Lo bello que es vivir* –Nicol Piovani– eta *My heart will go on* –James Horner Will Jennings– lanak eskainiko dituzte. John Lennon eta Paul McCartney Beatles taldeko musikariren *All You need is love* abesti ezagu-

narekin jarraituko dute gaztetxoek. Ondoren, *I have a dream* –Benny Andersson Bjöm Ulvaeus– lana eskainiko dute eta saioa amaituko dute Mikel Laboaren *Txoria txori* abesti ezagun eta hunkigarriarekin. "Ez dute abestuko guk ezagutzen dugun moduan, abestiak Moises Bautistaren moldaketak izan ditu eta egokituta dago gaztetxoek abesteko", dio Sarasolak.

Hilaren 29an Kursaal

Sarasolak dio kostu handia dela horrelako ekitaldiak antolatzea, batez ere haurrak kanpotik ekarri eta hemen izateak. Hori dela eta, hilaren 29an bakarrik entsetuko dute haur guztiek batera. Esan behar da musu-truk abestuko dutela haurrek.

Arantzazukoa, baina, ez da izango eskainiko duten kontzertu bakarra. Hilaren 29an Donostiako Kursaal auditoriumean eskainiko dute beste saio bat, 20:00etan. Donostiako kontzerturako sarrerak 15, 22 eta 27 eurotan daude salgai eta Arantzazuko kontzertukoak, 15 eurotan.

Arantzazun giro berezia

IPD Management enpresako zuzendari Javier Trosek antolatuta 2009an egin zen horrelako ekitaldi bat Arantzazun. Orduan, *Kulturen arteko topaketak* izenarekin Espainiako hiru eskolania onenek parte hartu zuten. "Harre-beroa egin ziguten Arantzazun. Ederra da santutegia berez, eta giro berezia sortu zen", azaldu du Sarasolak. Arantzazuko fraideen aldetik jaso duten laguntza ere bikaina izan dela gaineratu du Easo Abesbatzako presidentea. Arantzazu Fundazioa bakegintzan erreferente bilakatu delako "leku egokia" da santutegia horrela-koetarako.

SANTOS SARASOLA | EASO ABESBATZAKO PRESIDENTEA

"Akustika ona du santutegi horrek"

Kontzertua antolatzen laguntzen ibili da Sarasola.

Zaila da horrenbeste haur batzea?

Zaila da, batez ere ezin direlako elkarrekin egon 300 haur horiek. Easo Abesbatzak, esaterako, harreman ona du Orfeoi Txikiarekin eta elkarrekin entsetzen ere ibili izan gara. Bilboko eta Zaragozako abesbatzak hilaren 29an etorriko dira, eta orduan egingo ditugu entseguak, lau guztira.

Arantzazura joango denak zer topatuko du?



Santos Sarasola. | EASO

Batez ere, gaztetxoek abesbatza onak ikusiko ditu. Ez da musika sakroa izango, mundu mailan ezagunak diren abestiak baizik.

Nolako lekua da Arantzazuko kontzertuetarako?

Akustika ona duen santutegia da, eta giro berezia sortzen da. Kontuan hartu aldarearen aurrealdea dela dena, ez dago ezkutuko lekurik. Gainera, bakearen aldeko kontzertua izango dela kontuan hartuta, leku egokia da Arantzazuko Santutegia, egokia.

DATUA

300

AHOTS

Lau abesbatzarako
300 ume batuko dira
Arantzazuko Santutegian.

Debagoiendarren presentzia

Bakearen aldeko kontzertuan bi debagoiendarrek parte-hartze zuzena izango dute: batetik, Esteban Urtelai ofatiarra dago. Urtelai Donostiako Orfeoi Txiki zuzendaria da. Hala, Orfeoi Txikiaren bakarkako saioa eta denek batera abestuko duten *Lo bello que es vivir* eta *My heart will go on* zuzenduko ditu.

Bestetik, Oscar Candendo piano-jotzaile antzuolarra dago. Easo Abesbatzarekin jardungo du antzuolarrak bakearen aldeko kontzertuan.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giro!

Anduaga Jatetxea

Eguneko menua
Bokatak
Plater konbinatuak
Errazioak
Karta

Araba Ibilbidea 31, behea
ARETXABALETAK | 943 79 96 54



BASABE

Menuak
eta afariak

Basabe poligonoa
ARETXABALETAK 943 77 31 19



DORLETA TABERNA

Loteria eta
kinielak

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15
ARETXABALETAK



Gurea TABERNA

Lotoak eta
kinielak

Durana 32 ARETXABALETAK
Tel.: 943 79 20 64



HIRUSTA JATETXEA

Eguneko menua
Karta
Bokatak
Plater konbinatuak

Ilargi plaza 4.
ARETXABALETAK
Tel.: 943 79 06 57



IOSU taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETAK
Tel.: 943 77 03 08



Matikua jatetxea

MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK

Azatza auzoa
ARETXABALETAK
943 79 16 68



OTZETA JATETXEA

- Menua
- Gazte menua
- Karta
- Eramateko
janari prestatuak.
- Ogitartekoak.

Aranburuzabala 9
ESKORIATZAK
Tel.: 943 71 31 67



'Irakurri, gozatu eta oparitu'

kanpaina martxan da berriz

Topaguneak antolatu du ekimena; Debagoienean, Aramaion bakarrik jarriko dute martxan kanpaina

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Astelehenean aurkeztu zuten Donostian *Irakurri, gozatu eta oparitu* ekimenaren bosgarren edizioa. Hego Euskal Herriko 12 herritan egingo da ekimena, tokian tokiko euskara elkarteetan, udal liburutegien eta liburu-denden elkarlanari esker. Gurean, Aramaion egingo dute, Txirritola euskara elkartearen laguntzarekin.

Hiru pauso eman behar dira

Kanpainan parte hartzeko hiru pauso eman behar dira: lehenengo pausoa irakurtzea da; euskaraz irakurtzea. Herriko liburutegi publikora joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan hartzea da lehen pausoa. Hartzea eta irakurtzea, noski.

Liburua irakurritakoan, liburutegira bueltatu, eta fitxa simple-simple bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburua, zer inpresio eman digun... Fitxa hori beteta, liburuzainak erosketa-txekea eman-



Manuel Moreno eta Bakartxo Iguaran, aurkezpen egunean. | JOXE ROJAS

go du, hitzartutako liburu-dendan erabiltzeko.

Azken pausoa, berriz, liburua opari egitea izango da. Liburutegian jasotako txartelarekin prezioaren %25 ordaindu ahal izango da hitzartutako liburu-dendan euskarazko edozein liburu erosita, edo prezioaren %50 euskara elkartearen kide izanez gero.

Irakurzaletasuna bultzatzea

Egitasmoaren helburu nagusia irakurzaletasuna bultzatzea da, euskaraz irakurtzearen alde atsegina bultzatu gura dute.

Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoa apirilaren 23an hasiko da, eta uztailaren 23an amaitu. Izan ere, uda izaten da jendeak irakurtzeko denbora luzeen duen garaia.

Ainhoa Sagarribai aretxabaletarrak idatzitako bi liburu, kalean

A.E. | ARETXABALETA

Hiria argitaletxeak argitaratu dizkio Ainhoa Sagarribai aretxabaletarrari *Pedacitos de Alma* eta *Hortzadarraren hiria* (euskaraz eta gazteleraz) liburuak. Asteon jarri dituzte liburu-dendetan salgai.

"Betidanik idatzi izan dut, baina, nik diodan moduan, niretzat. Diziplinarekin idazten orain dela 6 bat urte hasi nintzen", azaldu du Sagarribaik. Gaineratu du oso pozik dagoela; izan ere, lehenengo aldia da liburu bat argitaratzen diotena.

'Pedacitos de alma'

"Kontaketa bilduma bat da, eta ez dago gai konkreturik. Mai-

tasunaz, maitasunik ezaz, naturaz... dihardut", azaldu du. *Lágrimas de fuel*, esaterako, Prestige hondamendiaren gaineko ipuina da.

Hortzadarraren hiria umeendako ipuin liburu da.

ESANAK

"Diziplinarekin idazten orain dela sei urte hasi nintzen"

AINHOA SAGARRIBAI | IDAZLEA

Arrasateko Gudarien plazan Lord Witch eta Emon taldeek jardungo dute datorren astean

A.E. | ARRASATE

Musikaz betetako jaiak antolatu dituzte Arrasateko San Andres auzoan. Apirilaren 29an La Madriguera, Lord Witch eta Despierta McFly taldeek jardungo dute taula gainean. 22:00etan hasiko da kontzertua.

La Madriguera Arrasateko taldeak joko du lehenengo;

ondoren, Bergarako Lord Witch taldea igoko da taula gainera. Bergararrek Debagoieneko talde onenaren saria jaso zuten Danbakako azkeneko edizioan.

Domekan, maiatzaren leian, Arrasateko Transit Blues eta Bergarako Emonek eskainiko dute kontzertua, 22:00etan.

DEBA GOIENENKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK *A

BATXILERGOAK

IKASTETXEAK

ATE IREKIAK

Arrasate Institutua **ARRASATE**

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Arte Batxilergoa

Maiatzaren 4an
18:00etan

Ipintza Institutua **BERGARA**

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak

Maiatzaren 5ean
18:30ean

Zuazola Larraña Institutua **OÑATI**

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak

Maiatzaren 3an
18:00etan
(Zuazola)

* HEZIKETA ZIKLOAK


- Mekanizazioa
- Makinen eta Linea eroanbideen mantenu elektromekanikoa
- Natur Ingurunean kirol ekintzen gidaritza
Izena emateko epea: **Ekainaren 1etik 10era**

Maiatzaren 25ean
18:00etan
(Larraña)

Zure etorkizunerako aukera guztiak

izena emateko epea zabalik maiatzaren 2tik 11ra

Guztion eskola guztion artean



goieskola
www.goieskola.net



baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa



Janire Urteaga | Igerilaria

"Hasieran negarrez joaten nintzen eta beldurra nion urari; orain, berriz, ezin dut igeriketa alde batera utzi"

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

Kirolari eta bereziki igeriketari lotutako bizitza darama Janire Urteagak (Oñati, 1987). Kirola zaletasuna baino gehiago da haren dako; ikasketak ere kirolera bidertatu ditu, hein handi baten. Heziketa fisikoan espezializatutako irakasle ikasketak egin zituen lehendabizi -Tafyd-ekin batera- eta egun, Psikopedagogia ari da egiten Donostian. Kirolaz gain, dantzan egitea ere maite du: Oinatz dantza taldeko kidea da txikitatik, eta, dantzan egiteaz gain, haurrei erakusten ere aritzen da.

Noiz hasi zinen igeriketan? Zeintzuk izan dira zure lorpen nagusiak?

Oso txikitatik hasi nintzen igeriketan, 3 urterekin-edo, baina 9 urte izan arte ez nintzen Aloñako klubean sartu. Hau da, adin horrekin federatu nintzen, eta ordutik 18 urte bete arte aritu nintzen Aloñako taldean.

Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan parte hartu izan dut; hau da, horietarako minimoak lortu izan ditut lau edo bost urtean zehar.

Noiz utzi zenien federatu izateari?

18 urte bete nituenean kluba utzi nuen. Entrenamendu saioak eta ikasketak ez ziren bateragarriak, eta, beraz, lehiatzeari uztea erabaki nuen. Hala ere, ez nuen igeriketa utzi; ordutik, igeriketa zeharkaldi ezberdinetan hartzen dut parte, uda aldean: Getaria-Zarautz, Nojan egiten den zeharkaldia, Zurriola eta Kontxa artekoa...

Hainbat probatan ematen dut izena urtero eta urtez urte nire marka hobetzen saiatzen naiz; nire buruarekin lehiakorra izatea gustatzen zait.

Igeriketa kirol gogorra dela diote: bakarkakoa, gorputza zaintzea eskatzen duena, entrenamendu ordu asko... Zergatik aukeratu zenuen?

Nik ez nuen aukeratu, egia esan. Gurasoek bultzatuta sartu nintzen igeriketan, txiki-txikitatik. Gainera, gogoratzen naiz hasieran oso gaizki pasatzen nuela, negar baten etortzen nintzen eta beldurra nion urari. Baina gurasoek ez zuten amorerik eman; bada, lehen gorrotatzen nuena orain ezin dut alde batera utzi.

Igeriketaz gain, beste kirol batzuk ere egiten dituzu. Zeintzuk?

Gimnasioan aritzen naiz bereziki, eta urtero aldatzen dut. Iaz, stepa, aerobika eta tonifikazioa egiten nituen eta aurtun, berriz,

Santiago bidea bizikletaz egiteko asmoa dudanez, spinningean eman dut izena. Beraz, aurtengo udarako badaukat erronka: Santiago bidea barruko ibilbidetik bizikletaz egitea.

Euskal dantzak ere oso gustuko dituzu. Noiztik?

5 edo 6 urterekin sartu nintzen Oinatz dantza taldean eta oraindik ere taldeko kide naiz. Beraz, ia bizitza osoa daramat dantza taldean. Dantzan egitea izugarri gustatzen zait, eta taldeko giroa oso ona da; horrek taldean jarraitzea animatzen nau.

Gainera, Batxilergoko lehen mailatik dantzari moduan parte hartzeaz gain, gaztetxoei dantzan egiten irakasten hasi nintzen. Oraindik ere eginbehar horretan jarraitzen dut, oso gustura.

Debagoienean dantzan egin izan dugu, baina kanpora ere irten izan gara; esaterako, Zurichera. Haurrekin, berriz, Euskal Herri osotik mugitzen gara, batez ere dantzari egun ezberdinetan.

Zure zaletasunak besteei kutsatzen saiatzen zara, beraz.

Hala da. Igeriketaren kasuan ere, Huhezin goizez ikasten nentzen bitartean, hiru urtean zehar, arratsalde Zubikoako igerilekuan egiten nuen lan.

Orain, Donostian ikasten nagoenez, ezin dut astean zehar lanik egin. Hala ere, ordezkapek egiteko deitzen didate eta normalean aste bukaeretan lan egiten dut. Beraz, ez dut denbora libre luzerik izaten.

Zein da Zubikoa kiroldegian egiten duzun lana?

Begirale moduan aritzen naiz nire betiko umeekin. Gaztetxoekin ere egoten naiz igeriketaren oinarriko arauak irakasten. Gainera, aquagymeko irakasle ere banaiz eta uda partean waterpoloko irakasle moduan ere egin izan dut lan. Eta, noski, sorosle lanak ere egiten ditut.

MARRA AZKARREZ

Oñatiko txoko kuttunena: San Martin.

Gosari gustukoena: Zerealak jogurtarekin.

Kantu gustukoena: Zea Mays taldearen *Negua joan da-ta*.

Bidaia gustukoena: Praga, Budapest, Bratislava eta Viena artean egindakoa.

Liburu gustukoena: *Un burka por amor*, Reyes Monfort idazlearena.

Ametz bat: Zoriontsu bizi izatea.

Gorrotatzen duzuna: Jendeak ezjakintasunean oinarritzen diren adierazpenak eta iritziak ematea.



Aste bukaeretan Zubikoa kiroldegiko igerilekuan egiten du lan Urteagak.

ASTEAGOIENAN



JOSU TXINTXURRETA

'Tertulia' saioa eskainiko dugu eguaztenean

Larraitz Zeberio aurkezleak gidatutako *Tertulia* programa eskainiko dugu eguaztenean, 21:30ean. Hainbat gonbidatuekin batera, gazteen kontuak jorratuko dituzte Goiena telebistako platoon.

'Tertulia'
Eguaztena, 21:30



JOSU TXINTXURRETA

Hilaren 26an itzuliko gara albistegiarekin

Hurrengo martitzenetik aurrera *Berriak* saioarekin itzuliko gara, ohi bezala, 14:45ean. Horrela, gure bailaran gertatzen diren albisteen berri jakiteko aukera izango duzue Goiena telebistatan.

'Berriak'
Martitzena, 14:45

GOIENA TELEBISTA

| EGUAZTENA, 20 | EGUENA, 21 | EGUBAKOITZA, 22 | ZAPATUA, 23 | DOMEKA, 24 | ASTELEHENA, 25 | MARTITZENA, 26 |
|--------------------------|---|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|--------------------------|
| 13:15 Marrazki bizidunak | 08:00 Marrazki bizidunak | 08:00 Marrazki bizidunak | 08:00 Marrazki bizidunak | 08:00 Marrazki bizidunak | 08:00 Marrazki bizidunak | 13:15 Marrazki bizidunak |
| 13:35 Kantari | 09:45 Ipupomamua | 09:00 Leku txiki bat | 09:45 Ipupomamua | 09:00 Ipupomamua | 09:00 Kantari | 13:45 Kantari |
| 14:00 Harmailatik | 10:15 Leku txiki bat | 09:30 Ipupomamua | 10:15 Korrika17 | 09:30 Marrazki bizidunak | 10:00 Erreportajea | 14:15 Onein |
| 14:45 Berriak | 10:45 Korrika 17 | 10:00 Marrazki bizidunak | 11:20 Magazinea | 11:15 Kantari | 10:35 28Kilpr | 14:45 Berriak |
| 15:15 Onein | 11:45 Dokumentala: Zenbait gazte ausart | 11:00 Kantari | 11:50 Ur eta lur | 12:15 28Kilpr | 11:10 Iparraldea bertan | 15:15 Erreportajea |
| 15:55 Hamaika.bit | 12:50 Trikitixa jaialdia | 12:00 28.Klip | 12: 20 Onein | 12:45 Berbetan | 12:50 Trikitixa jaialdia | 15:50 Bi tartean |
| 16:30 Leku txiki bat | 13:25 Kantari | 12:30 Bertso saioa | 12:40 Bertso trama | 13:15 Ur eta lur | 13:20 Marrazki bizidunak | 16:20 28Klip |
| 16:45 Berriak | 14:30 Onein | 13:20 Marrazki bizidunak | 14:15 Kantari | 13:55 Nere herri | 13:50 Kantari | 16:50 Berriak |
| 17:15 Marrazki bizidunak | 15:25 Hamaika.bit | 13:45 Kantari | 15:15 Marrazki bizidunak | 14:40 Onein | 14:25 Berbetan | 17:20 Marrazki bizidunak |
| 17:45 Bertso saioa | 16:00 Ikusmira | 14:15 Onein | 16:15 Nire herria | 15:00 Gipuzkoa kultura | 15:00 Trikitixa jaialdia | 17:50 Iparraldea bertan |
| 18:45 Berriak | 16:40 Trikitixa jaialdia | 15:00 Berbetan | 17:00 Gipuzkoa kultura | 15:30 Hamaika.bit | 15:35 Ikusmira | 18:55 Marrazki bizidunak |
| 19:15 Kantari | 17:05 Marrazki bizidunak | 15:30 Ur eta lur | 17:30 Tertulia | 16:00 Erreportajea | 16:15 Gipuzkoa kultura | 18:30 Berriak |
| 19:45 Magazinea | 18:00 Ipupomamua | 16:00 Leku txiki bat | 18:30 Bertso saioa | 16:35 Ikusmira | 16:45 Bertso trama | 19:00 Kantari |
| 20:45 Hamaika.bit | 18:30 Leku txiki bat | 16:30 Erremeixuak | 19:00 Berbetan | 17:05 Marrazki bizidunak | 17:20 Marrazki bizidunak | 19:30 Erremeixuak |
| 21:30 Tertulia | 19:45 Erreportajea | 17:00 Ikusmira | 19:35 Ikusmira | 17:45 Bertsoak | 18:20 28Klip | 20:00 Berriak |
| 22:30 Korrika 17 | 19:15 Kantari | 17:40 Marrazki bizidunak | 20:45 Erremeixuak | 18:20 Kantari | 18:50 Kantari | 20:30 Hamaika.bit |
| 23:35 Magazinea | 19:45 Tertulia | 18:15 Gipuzkoa kultura | 21:15 Bi tartean | 19:00 Ipupomamua | 19:25 Iparraldea bertan | 21:00 Bertso saioa |
| | 20:45 Hamaika.bit | 18:45 Ipupomamua | 21:45 Bertso saioa | 19:30 Magazinea | 20:40 Dokumentala | 21:50 Berriak |
| | 21:20 Bertso saioa | 19:15 Nere herrie | 22:55 Magazinea | 20:00 Bertso saioa | 21:45 Pilota | |
| | 22:15 Pilota: Soraluze Saria | 20:05 Kantari | 23:30 Tertulia | 20:25 Ikusmira | 23:20 Gipuzkoa kultura | |
| | 23:55 Iparraldea bertan | 20:35 Erreportajea | | 20:50 Erremeixuak | | |
| | | 21:00 Gipuzkoa kultura | | 21:20 Magazinea | | |
| | | 21:30 Erremeixuak | | 21:50 Tertulia | | |
| | | 22:00 Bertso saioa | | 22:50 Iparraldea bertan | | |
| | | 23:00 Tertulia | | | | |

ARRASATE IRRATIA

Musikak hartuko du protagonismoa Aste Santuan

Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioak atseden hartuko du maiatzaren 2ra arte. Hala ere, bitartean izango dugu zer entzun: estilo askotariko musika entzuteko aukera izango dugu egun osoan Arrasateko uhinetan.

'Goiena.net'-en ere entzungai daukagu Arrasate Irratia

Arrasate Irratia 107.7ko uhinetan entzun dezakegu. Baina hori ez da aukera bakarra gurekin bat egiteko: Goiena telebistan ere entzun daiteke gure irratia, eta baita *Goiena.net*-en bitartez ere. Beraz, egin bat Arrasate Irratiarekin.

Gremioen gida



Osasun zerbitzuen gida



Jatetxeen gida



Profesional liberalen gida



NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAUKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Iragarkia jartzeko, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

ESKER ONA

Gonzalo Eguren Eguren

Juana Egigurenen alarguna



2011ko apirilaren 16an hil zen, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2011ko apirilaren 20an.

URTEURRENA

Manuel Izurrategi Azkarretazabal



Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 24an, 12:00etan, Aretxabaletako Arkarazo auzoko San Millan elizan ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, alde aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Ane Telleria Iñurritegi



2005eko apirilaren 20an hil zen.

Ta memorian, zure irria.
Ta memorian, zure begiak.
Ta memorian, bizi zaitugu.
Ta memorian, izango zaitugu.

Zure kuadrillia.
Oñatin, 2011ko apirilaren 20an.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05. EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.



- ARRASATE**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31.
943 25 05 05.
- BERGARA**
Goiena: Ibarra kalea 6.
943 25 05 05.
- OÑATI**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9.
943 78 10 65.
- ARETXABALETA**
Goiena: Durana 11.
943 79 86 21.
edo: Basabe poligonoa E05.
943 25 05 05.
- ARAMAIO**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11.
945 44 50 22.
- ELGETA**
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2.
943 76 80 98.
- ANTZUOLA:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1.
943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 126 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

Babeslea:



Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

GUARDIAKO FARMAZIAK

| ARRASATE | | | |
|-----------------|---------------------|---------------------|--------------|
| Eguena, 21 | LOURDES AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Egubakoitza, 22 | AURORA RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| Zapatua, 23 | M. FCA. AZCOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Domeka, 24 | JUAN ANTONIO IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Astelehena, 25 | LOURDES AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Martitzena, 26 | M. FCA. AZCOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Eguaztena, 27 | ANA FDEZ. CORCUERA | Aranbarri plaza, 1 | 943 79 22 26 |
| BERGARA | | | |
| Eguena, 21 | JAVIER ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 22 | L. ALVAREZ-M. MOZOS | Iparragirre | 943 76 12 15 |
| Zapatua, 23 | A. URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| Domeka, 24 | A. URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| Astelehena, 25 | IÑIGO ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 26 | MERCEDES GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 27 | JAVIER ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| OÑATI | | | |
| Eguena, 21 | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 22 | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Zapatua, 23 | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 24 | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 25 | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 26 | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 27 | ANDUAGA | San Lorenzo, 3 | 943 78 21 16 |
| ARETXABALETA | | | |
| Eguena, 21 | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 22 | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| Zapatua, 23 | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 24 | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 25 | JUAN FRAILE | Herriko plaza, 1 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 26 | JUAN FRAILE | Herriko plaza, 1 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 27 | JUAN FRAILE | Herriko plaza, 1 | 943 79 21 99 |

Farmazien eskuko telefonoetarako 2010 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

EGURALDIA

DEBAGOIENA



Max. 24°
Min. 11°



Max. 24°
Min. 11°

EGUENA, 21
Giro nahasia izango dugu. Eze-gonkortasuna areagotu egingo da eta zaparrada trumoiutsuak bota ditzake han-hemenka.

EGUBAKOITZA, 22
Tenperaturak ildo beretik jarraituko du eta arratsaldeko lehen orduetan eguraldi atsegina izan dezakegu.

EUSKAL HERRIA



Orokorrean giro nahasia izango dugu egunotan Euskal Herrian. Zaparradak bota ditzake.

GAZTE INFORMAZIOA

KOSTA ALA KOSTA

Gazte oporraldiak. Txatxili-purdi. 14-16 urte arteko gazteentzako udako eskaintza. Uztailaren 5etik 16ra, Garaion hasi eta Zarautzen bukatu. Animatu eta eman izena maia-tzaren 6a baino lehen!

LANA

Irakurleak. Etxepare Euskal Institutuak Euskara eta Euskal Kulturako hamar irakurle hautatzeko deialdia ireki du, 2011/2012, 2012/2013 eta 2013/2014 ikasturteetan Europako eta Amerikako hamar unibertsitate aritzeko. Epea: maia-tzaren 5a. etxepare@etxepare.net.

Lorzaina. Eibarko Udala. Epea: maia-tzaren 7a.

Ikerketa arloa. CSIC. 218 praktika-kontratu CSICen zen-

troetan eta instituetan. Iraupena, 2 urte. Unibertsitate tituludunak edota LHko teknikariak. Epea: maia-tzaren 16a.

BEKAK

Maileguak. Hezkuntza Ministerioa. Masterrak eta doktoretza ikasketak modu osagarrian finantzatzeko. Baldintzak: masterra edo doktoretza egiteko titulua izatea. Matrikula egina izatea. Epea: maia-tzaren 31.

LEHIAKETAK

Kartelak. Aste Nagusia eta Euskal Jaiak iragartzeko 48. lehiaketako oinarri arauak onartu dira. Epea: maia-tzaren 8a.

Ikertzaileak. Hezkuntza Ministerioa eta INJUVE, Gazteriaren Institutua. Ikertzaile gazteen lehiaketa 2011. Epea: maia-tzaren 16a.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:
Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

OÑATI Bakearen aldeko kontzertua

300 hurrek abestuko dute bakearen alde Arantzazun, guztiak hurren lau abesbatza onenen artekoak: Easo Eskolania eta Easoko Araoz Gazte, Orfeoi Donostiarra Txiki, Bilboko Kontserbatorioko Korala eta Amici Musicae Korua (Zaragoza, Espainia). Zapatuan, basilikan, 12:00etan.



DONOSTIAKO ORFEOIA



SAIDA CABANAS

ARRASATE Emon taldea San Andresko jaietan

Dantzaldia antolatu dute San Andres jaietako zapatu gaue-rako (apirilak 30). Bergarako Emon taldearekin batera Arrasateko Transit Blues taldekoek joko dute. Apirilak 30, zapatua, San Andres auzoan, 22:00etan.

MUSIKA**OÑATI** EKO D Bull

Krawill EPA aurkezten dabil taldea azken asteetan. 2009an hasi zen kale-giroko rock talde hau jotzen Kanariar Uharteetan. Mandarrian Band taldearekin batera joko dute oñatiarrek.

Apirilaren 30a, zapatua, Edaska puba (Barakaldo) 22:00etan. Maiatzaren 14an, Oñatin joko dute.

ARRASATE La Madriquera, Lord Witch eta Despierta McFly

San Andres auzoko jaietan La Madriquera, Lord Witch eta Despierta McFly taldeek emanaldia egingo dute.

Apirilaren 29a, egubakoitzea, Gudarien plazan, 22:00etan.

ARRASATE Cobra

Cobra, Estatu Batuetako hegoaldeko rockaren kutsua daukan euskal talde indartsua. Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan.

Apirilaren 28a, eguena, gaztetxean, 22:00etan.

ARRASATE Diswar eta Peligro de Muerte

Hardcore jaialdia izango da bi taldeen eskutik.

Apirilaren 29a, barikua, gaztetxean, 22:00etan.

ANTZUOLA Txistularien diana

Domekeroko kalejira egingo dute Aste Santuko domekan ere.

Apirilaren 24a, domeka, herrian zehar, 10:00etan.

DANTZA**ESKORIATZA** Taldeko dantza ludikoak

Maiatzaren 1ean Aitzorrotz egunean, hain zuzen, plazako dantzaldi-errormerian joko diren dantzak landuko dituzte, batez ere, saio berezi honetan.

Apirilaren 30a, zapatua, Pilotalekuko gimnasia gelan, 18:00etan.

ANTZERKIA**ARRASATE** 'Txuri Beltz'

Kixka taldeak haurrentzako txotxongilo saioa egingo du. San Andres auzoko jaiei barruan.

Apirilaren 30ean, Hiruki plazan. 18:00etan.

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

APRILA 19
MAIATZA 2

ARRASATE 'Ogiyik karri etzun semia'

Txirene taldeko Edurne Agirrezabalarekin. Ama baten eta unibertsitatean daukan semearen arteko harremana kontatzen da antzezlan honetan.

Maiatzaren 25a, eguaztana, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

OSPAKIZUNAK**ELGETA** Ozkarbi eguna ospatuko dute

Txikiteoa, afaria eta dantzaldia egingo dituzte Ozkarbi elkarteak. Izenematea zabalik apirilaren 26ra arte, martitzena. Prezioa 15 euro da.

Apirilaren 30a, zapatua, Ozkarbi elkarteak, 20:00etan.

IRTEERA**ELGETA** Intxortako frontera bisita

Bisita gidatua egiteko aukera egongo da. Aurretik izena ematea beharrezkoa izango da honako telefono

hauetara deituta: 943 79 64 63 eta 943 71 89 11.

Apirilaren 21an, eguena, Espaloia Kafe Antzokian, 10:00etan.

HITZALDIAK**ARETXABALETA** Bildu alderdikoek Basotxon eskainiko dute berbaldia

Bildu alderdiko kideak Basotxora joango dira aurrez gertatutako galderak erantzutera. Gero elkarrizketa mahaiak osatuko dituzte erretiratuek.

Apirilaren 19a, martitzena, Basotxo erretiratuen egoitzan, 18:00etan.

OÑATI Ongizatea

Hitzaldia Nazaret Zentroko kide den Jose Maria Avilak egingo du, Pake Leku erretiratuen elkar-teak antolatuta.

Maiatzaren 3an, martitzena, Pake Lekuko egoitzan, 17:00etan.

ARRASATE Edurne Brouard

Emakume txokoak antolatuta, *Emakumeak protagonista* hitzaldi sortaren barruan.

Maiatzaren 17an, martitzena, Kultur Ateko klastroan, 19:00etan.

BESTELAKOAK**BERGARA** DJ jaialdia

DBHko ikasleei zuzenduriko saioa izango da.

Apirilaren 30a, zapatua, Zabalotegi aretoa, 18:30ean.

ARETXABALETA Ezohiko osoko bilkura

Hauteskunde mahaietan egon beharko duten herritarrak hautatuko ditu udalbatzak.

Apirilaren 26a, martitzena, Udaletxean, 18:00etan.

ZINEMA**OÑATI** 'Donde viven los monstruos'

Zine klubak antolatuta, Spike Jonzek zinemara egokitutako haur literaturaren klasiko eskainiko dute. Amarekin haserretu eta etxetik ihes egiten duen mutikoaren istoria kontatzen du filmak. Bidean galduta, monstruo bitxi eta handi batzuk bizi diren kostaldera iristen da. Hain zuzen, mutikoaren ametsa monstruo beldurgarri bat bilakatzea da.



GOIENA

ELGETA Intxortako frontera bisita gidatua

Frontea egon zen inguruan bisitaldi gidatua antolatu dute. Espaloia antzokitik irtengo da ibilbidea. Bisitaldian parte hartzeko, alde

aurretik izena emanda egotea komeni da, telefono zenbaki hauetara deituta: 943 79 64 63 eta 943 71 89 11.

Bihar, eguena, Espaloian, 10:00etan.

Haur zein nagusiei zuzendutako film oso berezia da, txundidura handi eragiten duena. Apirilaren 28a, eguena, Kultur Etxean, 20:00etan.

BERGARA 'La Ola' filma

Gaztetxeko zine-klubaren emanaldien barruan. Drama alemaniar honetan istorioa institutu batetan girotzen da. Irakasle batek, asteke proiektu bezala autokrazia lantzeko eskaera egiten die ikasleei. Ikasleek ez dute uste posible denik Hirugarren Reicha moduko erregimenik gaur egun. Irakasleak, baina, masak manipulatzeko zinen erraza den erakutsi gura die eta ikasleak azkenean joku maltzurreen sartzan dira fanatismora itzuliz. Mugimenduari *La Ola* izena ipintzen diote, hortik izenburua.

Apirilaren 24ean, domeka, gaztetxean, 18:00etan.

BERGARA 'Un hombre soltero'

Zabalotegiko zine-klubeko filma. Tom Ford moda diseinatzaileraren kamera atzeko lehen lana da. Estilo eta dotoretasunez jositako drama. 60 hamarkadan girotutako irakasle eta ikasle baten arteko harreman homosexuala kontatzen du. Protagonista bizipoza erabat galdu eta bere buruaz beste egitea pentsatzen dabilen irakaslea da baina bidean ikasle gazte eta jakin-minez bete bat gurutzatuko zaio. Argazki bikaina du filmak hasieratik bukarara arte.

Apirilaren 20a, eguaztana, Zabalotegin, 20:30etan.

IKASTAROAK**ARAMAIO** ETA **ESKORIATZA** Gela irekia egitasmoarekin, informatika ikastaroak KZgunean

Gela Irekia izeneko egitasmoarekin Aramaioko Udalak Bastida akademiarekin lankidetzan zenbait ikastaro egiteko aukera dakar. Maiatzean zehar izango dira ikastaroak. Udaletxean, liburutegian edota Arrasateko Bastida akademian eman daiteke izena. Ikastaroak honako hauek dira: hastapena Windows eta Word, Windows XP sistema eragilea, Word (oinarriko maila), Word (maila aurreratua),



goiena

2011-04-20

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

Balaztadek ez dute balio radar berriekin

- ▶ Oñatiko Cegasa enpresarena da Euskal Herrian tramuko abiadura neurtzen duen lehen radarra
- ▶ Tramuaren hasieran eta amaieran ibilgailuaren matrikula irakurritik kalkulatzen du abiadura


ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak martxoaren amaieran inauguratu zuen Euskal Herriko abiadura ertaineko lehenengo radarra. Ordizia eta Irura artean dago eta 19 kilometroko tramuan ibilgailuen abiadura neurtzen du. Oñatiko Cegasa enpresarena da sistema eta teknologia berriaren radarra –nahiz eta Gasteizko lantokian egiten duten.

Seguruagoa eta eraginkorragoa

Iñaki Madina oñatiarra Cegasa Motion Energyko zuzendari orokorra da eta Gasteizko lantokian radarraren nondik norakoak kontatu dizkigu: "Ohiko radarrek abiadura puntu konkretu baten neurtzen zuten. Sistema berri honek puntua beharrezko tramua neurtzen du. Puntu baten autoaren matrikula irakurtzen du eta handik kilometro batzuetara berriro ere irakurtzen du matrikula. Horrek denbora ematen digu eta distantzia ezagutzen digu. Eskolan guztiok ikasi genuen moduan: espazioa berdin, abiadura bider denbora".

Madinak azaldu digu tekniko eta segurtasun aldetik radar horiek hobeak direla: "Puntu



Cegasa Motion Energyko zuzendari orokor Iñaki Madina, radarrarekin. | CEGASA

radarrak ikusten ditugunean bat-batean galgatzten digu. Horrek autoen pilaketak eragiten ditu, eta baita istripuak ere".

Ohiturak aldatzea komeni

Euskal Herriko horrelako lehenengo radarra izan da Cegasak N-1ean ipini duena, baina badi-



Abiadura ertaineko radarra. | CEGASA

rudi etorkizunean sistema berri- ra ohitzen joan beharko dugula: "Puntu bakarrek radarrak ez dira desagertuko, baina argi dago etorkizunean joera izango dela abiadura ertaineko radarrak ipintzea".

Hori horrela izan dadin, baina, sare bat osatu beharko litzateke: "Sistema matritziala da eta horrelako sistema erabili ahal izateko egokiena da sareak sortzea. Errepide baten autoek irteera desberdinak izan ditzakete, eta irteera guztietan izan behar dituz irakurgailuak auto guztiak kontrolatu ahal izateko".

Nazioartera begira

Iñaki Madinak azaldu digu Eusko Jaurlaritzarekin ez ezik, Espainiako Trafiko Zuzendaritzarekin ere badihardutela lanean eta hainbat lehiaketatan eman dutela izena. Nazioartean ere, AEBetan, Mexikon, Hego Amerikan eta Australian, sistema berriak aukera asko dituela uste du oñatiarrak.

Etorkizuna abiadura ertaineko radarrak badira, bat-bateko balaztadek ez gaituzte isunetatik libratuko. Beraz, zirkulazio seinaleak zintzo-zintzo errespetatzea izango da onena.

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Egin apustu!

Dagoeneko badakigu Sortu ez dela hauteskundeetan izango, nahiz seguruenik legez-tatu egingo duten luze gabe. Aldiz, espero dut Bildu aukeren artean izango dela, hari joango zitzaizkion botoak hartzeko moduan. Izan ere, Batasunak bildu ohi duen boto mordoxka balekoa ez izateak aldatu egiten ditu emaitzak eta gehiengo faltsuak ahalbidetzen.

Beste faktore garrantzitsua parte-hartzearena da, hemen ere emaitzak mugitu egiten baitira noren boto-emailea abstenitzen den. Eta agian nire inguruan ez dudalako bero handirik sumatzen, baina nago abstentzioa altu samarra izan daitekeela.

Egia da Gipuzkoan oso irekia dagoela azken emaitza, ez baita alferrik lurralde honetan gertatu lau alderdi ezberdin nagusitu izana, txanda kuriosoan. Horrek agian suspertu lezake apur bat interesa, baina bestela epel dago giroa. Esaterako, badakit alderdi guztiak izan dituztela arazo potoloak zerrendak osatzeko, nahita ere apenas egin ahal izan dutela fitxaketa sonaturik.

Alderdien setakeriaz eta zerrenda itxien injustiziaz hausnartzea komeni da, baina beste behin ere etxeko lanak egin gabe datozkigu hauteskundeak. Hilabete falta da, egin apustu.

ELGETAKO
espaloia
KAFE ANTZOKIA

JUAN TAMARIZ

Kartomagian espezializatutako ilusionistaren ikuskizunak

Maiatzaren 6an eta 7an: 22:30ean

Sarrerak salgai:

Espaloian bertan eta on line: www.espaloia.com

